EUS

Donostia
San Sebastián



# Ongi etorri

P.S.P.. 1€ (BEZa barne)



PSP: 1€ (BEZa barne)

Editorea:
San Sebastián Turismo
Donostia Turismoa S.A.
Boulevard, 8
Tel.: (+34) 943 48 11 66

sansebastianturismoa@donostia.eus
www.sansebastianturismoa.eus

Zuzendaritza eta errealizazioa:
ACC

Testuak:
Alejandro Fernández Aldasoro
Mikel G. Gurpegui
Gontzal Largo
Borja Legarda

Itzulpenak:
Saretik Hizkuntza Zerbitzuak

Argazkiak:
Donostia San Sebastián Turismoa artxibategia, Donostia San Sebastián Turismoko bazkideak, ACC artxibategia, Rte. Alameda, Iñigo Agote, Barbara Allain, Dabid Argindar, Jesús Arregi, Rte. Arzak, Abar Aranburu, Gonzalo Azumendi, Basquetour, Rte. Martín Berasategui, J.M. Bielsa, Dietmar Denger, Ion Gorriti, GU, Javier Larrea, Mandrágora, Rte. Martín Berasategui, MIMO, Rte. Mugaritz, Oscar Oliva, Estitxu Ortolaiz, Maite Paternain, Rte. Rekondo, Sara Santos, Oneka Tirado, Idoia Unzurrunzaga, Mendi Urruzuno.

Inprimatzea: 2022ko urtarrila
MCCGRAPHICS, S.coop.
D.L.: SS-1408-2017
8. edizioa euskaraz: 2022ko urtarrila
Kopurua: 40.000 ale

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debekatuta dago editorearen idatzizko baimenik gabe erreproduzitzea, osorik edo zatika.

Liburuxka honetan jasotako informazioa 2021eko lehen hiruhilekoan jasotakoa da. Prezioak, helbideak eta bestelako informazio praktiko batzuk aldatu egin daitezke. Donostia San Sebastián Turismoak ez du bere gain hartuko gerta daitezkeen omisio edo akatsen erantzukizunik. Eskertuko genizueke, topatuz gero, edizio honetako akatsak eta omisioak helbide honetan jakinaraztea: sansebastianturismoa@donostia.eus

**Gida honetan erabilitako kalitate turistikoaren zigiluak:**

Calidad Turística Española · Compromiso de Calidad Turística · Euskadi Gastronomika

# ongi etorri

Ongi etorri hitzek hiri oso bat zuk ezagut dezazun zain dagoela ere esan nahi dute. Nortasunari eta bere ezaugarriei eutsita aurrera egiten asmatu duen hiriaren izaera berezia ezagut dezazula.

Nor garen zuri erakustea gustuko dugulako. Nolakoak garen erakustea. Kale, museo, denda edo txango bakoitzean zuri harrera egitea eta laguntza ematea. Tradizio, jarduera, jai eta plater bakoitza erakustea eta azaltzea. Xehetasun bakoitza.

Izan ere, harro gaude gero eta berdinagoa den planetan garena izaten jarraitzeaz. Turismogune ezberdina estimatzen badakiten eta, aldi berean, haien esperientziarekin gu aberasten gaituzten bisitariei harrera egitea.

Izan ere, atsegin dugu turismogune ezberdinaz gozatu nahi duten zure moduko bisitariak jasotzea. Atsegina. Jasangarria. Pertsonala.

Eskerrik asko etortzeagatik. Lagunduko dizugu?

Donostia San Sebastián

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN Turismoa

DONOSTIA TURISMOAREKIN HITZARMENA DUTEN ERAKUNDEAK:

EUSKADI BASQUE COUNTRY #Basquexperience · GIPUZKOA TURISMOA



**erreserbatu zure esperientzia**

Txangoak · Gastronomia · Itsas ibilaldiak · Bisita gidatuak · Museoak

Bila ezazu gida honetan **bertako jarduera** zigilua, eta erreserbatu zure esperientzia zuzenean turismo-bulegoan edo gure webgunean.

bertako jarduera

Donostia San Sebastián

**informazioa eta tiketak**
T. +34 943 481 166 | +34 607 187 462
www.sansebastianturismoa.eus

4 _ 9

## hiria

turista arduratsuaren dekalogoa _ **5**
10 ezinbestekoak _ **6**
historia pixka bat _ **8**

10 _ 31

## Donostia, auzoz auzo

Parte Zaharra _ **12**
Erdigunea eta eremu erromantikoa _ **16**
Gros eta Egia _ **20**
Antigua eta Igeldo _ **24**
Amara eta Erriberak _ **28**
Aiete eta Miramon _ **30**

32 _ 95

## zer egin?

plan gastronomikoak _ **34**
plan kulturalak _ **54**
kirol-planak _ **68**
slow tourism _ **74**
planak familian _ **78**
gaueko planak _ **82**
erosketa-planak _ **85**

97 _ 101

## inguruak

Donostiatik pauso batera

102 _ 103

## bertako gidariak

104 _ 112

## informazio praktikoa

turismo bulegoak _ **104**
intereseko telefonoak _ **105**
garraioa _ **106**
hirian aparkatzea _ **107**
ordutegiak eta tarifak _ **108**
hiriko planoa _ **110**

**Donostiarroi gure hiria gustatzen zaigu, eta ondo pasatzea ere bai. Hemen dituzu tokiko ohituretan murgiltzeko ideia batzuk, errespetuz eta gure hiria zainduz.**




### EUSKAL KULTURA. GURE HIZKUNTZA, EUSKARA, HAREN ADIERAZPEN GORENA

Saiatu “kaixo” eta “agur” esaten.

### APROBETXATU ZURE EGONALDIA %100 ETA EZAGUTU GAITZAZU BENETAN

Donostian agente turistiko oso onak ditugu; hiriaren eta bertako jendearen sekretuak ezagutzen lagunduko dizute. Xarmadun leku eta ibilbideak, eremu turistikoenetatik eta bisitatuenetatik kanpo...

_ 102

### LAGUNDU MERKATARITZA TXIKIARI ETA TOKIKO GARAPENARI

Barneratu zaitez hiriko kaleetan eta erosi betiko dendetan donostiarra bazina bezala.

_ 85

### IBILI GARRAIO PUBLIKOAN

bertako jarduera

Ahal duzun guztietan, erabili garraio publikoa. Horretarako, Txartel Turistikoa gomendatzen dizugu.

_ 104

Orain, bizikleta bat alokatu eta hiria bi gurpilen gainean bisita dezakezu.

_ 71

### ZAINDU BIZILAGUNEN LOA...

Gauez tabernetan ibiltzeko asmoa baduzu, gogoan izan: zu dibertitzen ari zaren tokiaren gainean lo dagoen jendea dago. Haien loa errespetatuz gero, eskertuko dizute.

_82

### TURISMO JASANGARRIAGOAREN ALDE

Planeta denon etxea bada, gure logela da hiria. Hortaz, hiria zaintzea eta errespetatzea da lehen pausoa. Goza dezagun Donostiaz, baina zain dezagun haren nortasuna, aurrerantzean ere gozatzen jarraitu ahal izateko.

**eskerrik asko!**

Donostia Turismoa Turismoaren garapen iraunkorrarekin eta arduratsuarekin konprometituta dago, bisitatzen gaituzten herritarren eta pertsonen onura eta ongizate handiena bilatzen dugu.

**turismo bulegoaren ordutegia:** Astelehenetik larunbatera: 9:00 -19:00 / Igandeetan: 10:00-14:00
**www.sansebastianturismoa.eus**

# 10 ezinbestekoak



## Kontxa: hondartzen erregina

Testuinguru paregabean, Donostiako harribitxi nagusia. Kantauriko Perla. Erlaxatu Belle Époque garaitik jasotako ondarea den La Perla Talasoterapian, eta gero bainatu (negua izanda ere!) hondartzan. _ **18**

## bereziena? “Parte Zaharra”, noski



Parte Zaharra da hiriko auzo benetakoena, metro oso gutxian biltzen dira eliza gotiko bat eta basilika barroko bat, zezen-plaza izandako plaza bat (horregatik daude zenbakituta balkoiak), giroz betetako kalezulo estuak edo hiriko barazki onenak saltzen dituzten “baserritarrak”. _ **12**



## Belle Époque arkitektura

XIX. mende hasieran, Donostia Europako hiri estimulatzaileenetakoa izan zen eta Pariseko ukitu nabarmena duen Eremu Erromantikoa horren erakusgarri da. Gozatu Artzain Onaren Katedralaren aurreko atariez, Gipuzkoa Plazaz edo Hotel María Cristina ezagunaz. _ **62**



## pintxoak

Hirian dauden auzoak bezainbeste modu daude mikroplazer gastronomiko hauek dastatzeko. Parte Zaharra da epizentroa, eta bertan daude taberna beteranoak eta abangoardistenetako batzuk. Gros eremu gazteagoa eta tokikoagoa da, aldiz, Erdigunea eta Antigua auzoetan eremu erlaxatuagoa eta familia-giroa topa ditzakezu. Oraindik nahikorik ez baldin baduzu, eman izena sukaldaritza-eskoletan, benetako Donostiako chef bihurtuko zara. _ **38**



## portura bidean!

Donostiako portuak balea-arrantzaleen belaunaldiak jaso izan ditu, mila ekaitzen aurka ahalegindu ziren arrantzaleak. Istorio horiek guztiak Ontzi Museoan eta Aquariumean daude, biak portuan. Murgil zaitez bertan Donostiako itsasgizonen historia handian. _ **14**



## ordubeteko paseoa itsas bazterrean

Eman paseo bat Sagues eta Haizearen orrazia lotzen dituen sei kilometroko itsas pasealekuan zehar, Pasealeku Berritik –Urgull mendia inguratzen duena– eta Kontxako pasealekutik pasata. Ibilbide atsegina da, eta hainbat euskal eskultoreren lanik onenetako batzuk ikusteko aukera izango duzu, hala nola Chillida, Oteiza, Basterretxea edo Dora Salazarrenak. Eta, itsasoaren eta artearen giroan murgildu nahi baduzu, ontzira zaitez portuan eta bisita ezazu “Hondalea” uharteko itsasargian. Bidaia on!

## itsaso bat kirol bakoitzerako

3 hondartza, 3 estilo. Zurriolara surflariak, piraguismoa edo Stand Up Paddlea praktikatu nahi dutenak Kontxara eta igerilariak Ondarretako hondartzara, bertatik errazagoa baita Santa Klara uhartera iristea. Itsasontziz ere joan daiteke edo hondar finetan erlaxatu. _ **68**





## made in Donostia

Hiria gogoratzeko modurik onena haren zatitxo bat gordetzea da, txakolin botila bat izan daiteke, pantxineta edo Idiazabal gazta.

Edo agian hiriko boutique-denda esklusiboren bateko opariren bat, “made in Donostia” surf-taula bat, edo tokiko arte-lanen bat… zerrenda mugagabea da! _ **85**

## bidai bat euskaldunen herrialdera

Murgildu euskal kulturan San Telmo Museoan eta ezagutu euskararen, Europako hizkuntza zaharrenaren, sekretuak. Hori guztia domingotarren antzinako klaustrodun komentuan gordeta dago. Gainera, nazioarteko aitorpena duen abangoardiako eraikin batekin zabalduta dago komentua izandakoa. _ **55**



## Donostiako begiratokiak

Igeldo, Urgull eta Ulia dira Donostiako hiru mendiak, eta neurri bikaina dute gailurrera igotzeko. Hiruretatik zure argazkietarako ikuspegi onenak ikusi ahal izango dituzu, eta denek dute ezusteko gehigarri bat. Igeldok? Funikular bat eta ehun urte baino gehiagoko atrakzio-parkea. Urgullek? Hilerri erromantiko bat. Uliak? Labarrak itsas ertzean. _ **73**



**Itsasoak Donostiara Urgull Mendiaren babesa aurkitu zuten lehenengo arrantzaleak ekarri zituen. Gero, Nafarroako Antso Erregearen interesa erakarri zuen, eta berak eraiki zuen; gerraren historian joan-etorrian ibili ziren armada guztiak ere erakarri zituen. Itsasoak, halaber, azaleko arazoak zeuzkan erregina bat ekarri zuen, bai eta gerora udaldia bertan emateko zabaltzen hasi zen moda ere. Eta itsasoak gaur egun dagoen kultura, ekonomia eta turismo potentziala ekarri du.**



**Errege-familiak Donostia aukeratu zuen uda pasatzeko. Argazkian, Alfontso XIII.a, Jaime eta Alfontso semeekin, 1920an, Kontxako badian, ontzi batean.**

# historia pixka bat

## itsasoak ekarri zuen guztia

Nafarroako Antso Jakitunak erresumak itsasorako irteera izateko zeukan interesa zela eta, 1180an **Donostiako forua** aldarrikatu zuen eta hiribilduaren sorrera ofiziala izan zela esan daiteke. Horrela, balearen eta bakailaoaren ohiko arrantzarekin batera, itsas merkataritza hasi zen.

Frantziatik hurbil dagoenez eta Done Jakue bidearen ibilbidean dagoenez, kostaldeko hiri txiki hau garatzen hasi zen, baina, gerra-garaietan, gune estrategiko gisa ere erabili zuten; beraz, XII. mendean, plaza gotortu bilakatu zen. Mendeetan zehar, setiaturik egon da, baina donostiarrek lortu zuten hiria etsaien erasoetatik babestea 1719ra arte, hiribilduaren kapitulaziora arte, Frantziaren esku geratu baitziren bi urtez. 1794an, Frantziak hiria setiatu zuen, 1813ra arte; orduan, soldadu anglo-portugaldarrak Donostian sartu eta su eman zioten hiriari eta suntsitu egin zuten.

Etxe batzuk baino ez ziren zutik geratu; beraz, donostiarrek ia osorik berreraiki behar izan zuten hiria eta orduan sortu zen gaur egun ezagutzen dugun Parte Zaharra.

Gerokoak sasoi alaiagoak izan ziren, Isabel II.a erregina zenean. Erreginari medikuek itsasoko uretan bainu hartzea gomendatu zioten, azalean zituen arazoak arintzeko; berak jarri zuen modan Donostiako udaldia. 1845. urtea zen, eta, harrezkeroztik, Erreginak udaldiak bertan emateak gortea eta aristokrata ugari erakarri zituen, udako hilabeteetan.

Hiria ospea hartzen hasi zen, eta hazi eta zabaltzeko beharra zuen. Harresiak 1864an eraitsi zituzten eta, hirigintza-garapenaren ondorioz, **Kortazar Zabalgunea** sortu zen, gaurko hirigunea.

XX. mende hasieran, Donostiak **"Belle Epoque"** garaia bizi izan zuen, eta Europako goi mailako klasearen helmuga turistiko gustukoenetako bat bilakatu zen. María Cristina erreginak gortearen udaldiko egoitzarako **Miramar Jauregia** aukeratu zuen, eta orduan hasi ziren luxuzko hotelak, kasinoak, antzokiak...

**I. Mundu Gerran**, Europako dirudunak bertan babestu ziren gatazkatik. Bisitari horiek direla eta, frantziarren eragin handia ikusten da Donostiako kaleetan. 1936ko Gerra Zibilaren ondoko urteen industrializazio trinkoak etapa iluna ekarri zuen, eta ordukoak dira hirigintzako hainbat huts.

Baina, XX. mendearen bigarren erdialdean, Donostiak ekonomia, kultura eta turismo arloko potentziala sendotu zuen eta, horretarako, proiektu berriak sustatu zituen eta, aldi berean, ondare naturalari eta historikoari eutsi zien. Horrela bilakatu zen gaur egun ezagutzen dugun tradizioaren eta modernitatearen arteko konbinazioa.

## une historiko garrantzitsuenen kronologia

**1180**
Nafarroako Antso Erregeak Donostiako forua aldarrikatu zuen; hiriaren sorreratzat hartu zen.

**1450**
Lehen merkataritza portua eraiki zen.

**1597**
Izurriak hiria hondatu zuen. Kutsatuak Santa Clara irlan tratatzen zituzten.

**1662**
Felipe IV.ak Hiri titulua eman zion

**1719-1721**
Donostiaren lehen kapitulazioa Frantziako armadaren aurrean.

**1813**
Tropa anglo-portugaldarrek hiria "askatu" zuten eta, horretarako, hiria erre eta ia osorik suntsitu zuten.

**1845**
Isabel II.ak modan jarri zuen Kontxako hondartza.

**1863**
Hiriko harresiak eraitsi zituzten.

**1888**
Artzain Onaren elizako lehenengo harria. 1897an amaitu zuten eta 1953an katedral kategoria eman zioten.

**1893**
Maria Kristina Erreginak gortearen udaldiko egoitza Miramar Jauregian ezarri zuen.

**1912**
Igeldoko funikularra, Victoria Eugenia antzokia eta Maria Cristina hotela inauguratu ziren.

**1953**
Donostiako Nazioarteko Zinema Jaialdiaren lehenengo edizioa.

Ez dago Donostia bakar bat.
Asko daude. Auzoak adina, hain zuzen. Pintxoen eta hondartzaren Donostia dago, baina baita zinemazaleen Donostia ere, itsas ondoan egindako ibilbideena, arkitektura modernoarena, surflariena edo korrikalariena, Kantauri itsasotik oso gertu dauden basoena, edo familia osoarekin gozatzekoa. Pasatu eta ikusi besterik ez dago...

# Donostia, auzoz auzo

HIRIA OSATZEN DUTEN SEI AUZO



# 1

# Parte Zaharra

Donostiako esentzien zaintzailea da. Donostia oraindik lurmutur estu baten bidez lehorrarekin lotutako irla zenean, Urgull Mendiaren babesean arrantzale auzunea zegoen.  Parte Zaharra auzune horren zuzeneko oinordekoa da, hiriaren bizigunea. Bertan daude hiriko eraikin zaharrenak, taberna, jatetxe eta elkarte ugarirekin.






gastro
historia
gaueko giroa

www.dbus.eus



**Konstituzio Plaza da Parte Zaharraren erdigunea** (3).



## tradizioa eta gastronomia

### Donostiaren esentziak

Hasi bisita **Bretxako merkatuan [1]**; tropa portugesek eta ingelesek 1813ko setioan harresia bota zutelako du izen hori, armada frantsesa hirian kuarteleratuta zegoenean. Kalean bertan dagoen merkatu tradizionalak Donostiako produktu ospetsuenetakoak dituen postuetako batzuk biltzen ditu, eta sukaldari ezagunenetako batzuek ia egunero bisitatzen dute.

Parte Zaharreko ia kale guztietan pintxo-tabernak eta jatetxeak dauden arren, **Fermin Calbeton [2]** kalea da, zalantzarik gabe, erregina, lokal kopuruagatik eta aukera-ugaritasunagatik. Eguerdian edo ilunabarrean bertatik paseatzean argi eta garbi ikus daiteke “txikiteoarekiko” pasioa - tabernaz taberna, pintxoz pintxo, ardoz ardo-, horixe izan da Donostiaren bereizgarria.

Kale horretatik metro oso gutxira, **Konstituzio Plaza [3]** dugu. Alde Zaharreko kaleen karratuak inguruan dantza egiten duen epizentroa da, bihotza. Arkupedun plaza da, hiriko antzinako udaletxea buru duela, eta bertako balkoiek oraindik ere garai bateko zezen-plazako leiho izandakoen zenbakiak dituzte.

Zalaparta, jende eta pintxoen giroa ere errepikatzen da **Kale Nagusian [4]**. Kale amaieran, Urgull mendiaren babesean, **Santa Maria Basilika [5]** dago, XVIII. mendean Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarraren diruari esker egindako tenplu barrokoa.

Eraikina harrigarria da dimentsioengatik eta Elizbarrutiko museo interesgarria duelako Greco, Jorge Oteiza edo Chillidaren artelanekin, besteak beste.

Eskuinera eginez gero, **Abuztuaren 31 Kalera [6]** sartuko gara, ospe gastronomikoaz gain, kale horrek esanahi oso berezia du donostiarrentzat: zenbaki bikoitien aldean dauden etxebizitzak izan ziren 1813ko setioan eragindako sute suntsitzailean iraun zuten bakarrak. Kalearen erdi aldean frontoi, jolas-plaza eta herri-kirolen txapelketetarako eta kontzertuetarako erabiltzen den espazioa dago: **Trinitate Plaza [7]**. ‘Trini’ Jazzaldian espazio maiteena da, aire zabaleko auditorioa, akustika bikainarekin, eta bertatik pasatu dira blues, soul edo jazz arloko musikari bikainak, hala nola B.B. King, James Brown edo Ella Fitzgerald.

Abuztuaren 31 kalearen beste aldean, **San Bizente Eliza [8]** dago, hiriko eraikin zaharrena. XVI. mende hasieran eraiki zuten, moda gotiko berantiarraren arabera, eta barrualde ilun eta itxian, Pasioaren eszenak dituen erretaula ikusgarria nabarmentzen da.

**Alde Zaharra hiriko hainbat enblematara iristeko sarbidea ere bada. Horietako batzuk dira, esate baterako, Santa Klara uhartea eta hango itsasargia. Azken horren barrualdean instalatu zuten, hain zuzen ere, Cristina Iglesiasen “Hondalea” obra eskultoriko ikusgarria 2021ean.**







Tenpluaren iparraldean dagoen Zuloaga plaza alaiaren beste aldean, **San Telmo Museoa [9]** dago, Euskal Gizartearen eta Herritarren Museoa. XVI. mendean eraikitako domingotarren antzinako komentu batean dagoen euskal historiari eskainitako erakusketa-espazioa da. Komentua 2011n eraikin abangoardista batekin zabaldu zuten.

Parte Zaharra zaintzen duen baso-masa handiak badu izena: **Urgull Mendia [10]** mendetan armadaren jabetzakoa izan zen, haren magaletan eta gailurrean gotorlekuak eraiki zituzten, hiria defendatzeko. Gaur egun oraindik mantentzen dira harresien zati batzuk hiriaren defentsarako iragan militarraren oroigarri gisa. Bidezidor eta sarbide ugari daude: San Telmoren alboan dauden eskalinatetan has daiteke hura ezagutzeko ibilbidea. Handik, Ingelesen hilerri erromantikoraino igo gaitezke. Laster iritsiko gara gailurrera, eta bertan, Mota gaztelua dago, eta Jesusen Bihotzaren monumentua; han Historiaren Etxea ezagutu ahal izango dugu (hiriaren 800 urteen historia kontatzen duen museoa), hiru hondartzak ikus daitezkeen hiriko puntu bakarretik ikuspegiez gozatu, eta porturantz jaitsi Apaizen pasealekutik.

Parte Zaharrak ez du hondartzarik, baina badu itsasorako irteera: **Portua [11]** hara Alde Zaharretik iristen da antzinako harresiko ateetako batetik. Donostiako kaiak nortasun propioa du, bizi osoko marinel-janaria eskaintzen duten jatetxeekin, aperitibo propioa (izkirak eta karrakelak) paseatzen den bitartean mokadutxoa hartzeko, eta garai bateko arrantzaleen familien etxe tipikoak. Amaieran, **Untzi Museoa [12]** dago, Donostiako marinel-memoria biltzen duena, eta **Aquariuma [13]**, ozeanario handi batekin, 360º-ko ikuspegia duen tunelak gurutzatzen duela.

Portutik abiatzen dira, uda-garaian, **Santa Klara Uharteko txalupa motordunak [14]**, donostiarren oasi gogokoenetako bat. Uhartean, urtetan itsasargizaina soilik bizi izan da, eta hiriaren joan-etorrietatik urruntzeko lekua da: ez dago ibilgailurik, hondartza txiki bat besterik ez dago (hegoaldera begiratzen duten Kantauri itsasoko bakarrenetakoa da), bide zidorrak, eskailerak, piknikeko mahaiak, txoko intimoak eta itsasoaren gaineko eta Donostiako 'skyline-ren' ikuspegi paregabeak. Eta aholku bat, igerian iritsi nahi bada: ibilbide laburrena Ondarretako hondartzatik da, 400 m.

**Urgull mendia hiriaren jabetzakoa izatera pasatu zen duela 100 urte eta doi urbanizatu zen, parkeak ia otzandu gabeko hiri-basoaren itxura manten zezan.**

Portua hasten den lekuan, **Pasealeku Berria [15]** hasten da, hiriko basatiena eta ederrena. Urgull mendia guztiz inguratzen du eta bertan izaten da eguraldi txarreko egunetan olatu erraldoien ikuskizuna. Bertan dago **Eraikuntza Hutsa [16]**, itsasora desafiatzaile begiratzen dion Jorge Oteizaren eskultura handia.

Eguzkia erortzen denean, **Klub Nautikoaren [17]** eraikin arrazionalista ederrak (1929) egunaren azken argiak erakartzen ditu. Haren alboan sortzen den eta itsaso barrura sartzen den plataforma da donostiarren leku gogokoenetako bat egunari amaiera emateko.



Abuztuaren 31 kalean basilika barroko bat eta eliza gotiko bat dituzu zain, zein baino zein ederragoak. Gainera, erakustaldi gastronomiko ezin hobea eta hiriaren historiaren funtsezko zati bat ere topatuko dituzu bertan

# 2
# Erdigunea eta eremu erromantikoa

Donostiako eremu erromantikoa XIX. mende erdialdean sortu zen hiribildua babesten zuen harresia eraitsi ondoren proiektatutako zabalgunean. Bertan ageri da Belle Époque garaiko xarma, kasinoetan, antzokietan eta hoteletan; bertan biltzen dira kale komertzial nagusiak eta hiriaren ukitu paristarra ukaezina da inguru horretan.






artea
modako dendak
terrazak

21 26 28



**Erdigunean hiri handi bateko pizgarri guztiak topatuko dituzu eta, gainera, Kontxa bistan dela.**



## arkitektura, Belle Époque eta shopping



**Boulevarda [1]** Parte Zaharra babesten zuten antzinako harresiak espazio horretaraino iristen ziren, eta gaur egun XIX. mende erdialdean eraikitako Donostiako eremu erromantikoarekin muga egiten du. Donostiako harresi zaharrak 1863an eraitsi zituzten, oraindik Bretxako merkatuaren beheko solairuan hondarrak ikus daitezkeen arren. Boulevarda hiri osoko oinezkoen kale nagusia eta animatuena da; zuhaizdun pasealeku atsegina, saltokiekin, izozki-dendekin… Mendebaldean, xehetasun modernista ederrak dituen musika-kioskoa dago. Alboan "Buleko ordularia" dago, belaunaldietan bikoteak eta "kuadrillak" elkartu diren lekua. Eta aurrerago, **Udaletxearen [2]** eraikina, hiriko antzinako kasinoa. Hain zuzen ere 1887an eraiki zuten Frantziako Kosta Urdinean eta Italiako Rivieran ugari ziren joko-etxeen estiloan.

Udaletxearen aurrean, **Alderdi Ederreko Lorategiak [3]** : XIX. mende amaieran kontu handiz planifikatutako espazio berdea, umeak zoratzen dituen zaldiko-maldikoarekin, eta Tamarizen edo Tamarindoen (horrela ezagutzen dira) etengabeko presentziarekin. Zuhaitz hori Donostiako itsas eremu guztietan dago.

Bi etxadi eskasera, Donostian eraikitako lehen parke urbanoa topatuko dugu, **Gipuzkoa Plaza [4]** , XIX. mendeko kutsu frantseseko loretegi ederra. Plazan Aldundiaren eraikina nagusitzen da, haren fatxadan, zati gorenean, euskal nabigatzaile ezagunenetako batzuen bustoak ikus daitezke. Hiriaren alde hau Europako hirigintza modernoaren estiloan eraikitako etxeen lauki-sare ordenatua da, baina Donostiako ukituarekin: eraikin horiek egiteko erabilitako harri horixka bereizgarria Igeldo eta Ulia mendietan zeuden harearri-harrobietatik ateratzen zen.

Ibaitik gertueneko zatian, Belle Époque garaiko Donostiako bi enblemak nabarmentzen dira: **Victoria Eugenia Antzokia eta Maria Cristina Hotela [5]** , bikote bereiztezina. Gerra arteko aldian Europako turistak erakarri nahi zituen (eta lortu

**ibai apala izanagatik ere, urumea ibaiak azken zatian donostiako paisaia urbano ederrenetakoa eta bereizgarrienetakoa sortu du.**

zuen) hiriaren ekimena izan ziren biak ere. Bi eraikinak, hirian izandako ehunka ospetsuren lekuko izan dira: Mata Hari, Bruce Springsteen, Elizabeth Taylor, Bette Davis, Woody Allen, Richard Gere edo Brad Pitt barne, hiriko Nazioarteko Zinemaldiko gonbidatuak izan baitziren.

Haien ondoan pasatzen da Urumea ibaia, eta bokalean Zurriola zubia dago, itsasoaren haserrearen aurrean lehenengo geratzen dena; art decó estiloko farola handiak ditu bereizgarri. Bigarren zubia, forma klasikoagoak dituena, Santa Katalina da, hiriko zaharrena. Hirugarrena, ibaian gora kilometro erdi bat eginda, **Maria Kristina Zubia [6]**, ezagunena, Pariseko Alejandro



III.aren zubian inspiratutako fantasien farolei esker.

Zubi hau zuzenean lotzen da **Bilbo Plazarekin [7]**. Plaza zirkularra da, erdigunean XX. mende hasieran eraikitako iturri ederrarekin. Plaza eremu erromantikoaren bihotzera eta Hondarribia eta Loiola kale komertzialenetara sartzeko atea da. Azken hori, guztiz oinezkoentzako jarrita, **Artzain Onaren Katedralaren [8]** markoa da, 1897an inauguratutakoa, Europako Erdi Aroko katedral handien omenaldi gisa. 75 metroko orratza da oraindik ere Donostiako eraikuntza altuena.

Eremu erromantikoaren bereizgarri dira kale erosoak eta oinezkoentzako plazak, eremu komertzialekin eta terrazekin. Errege Katolikoen kale alaiaren alboan, katedralaren atzealdera ikuspegiak dituela, **Koldo Mitxelena Kulturunearen [9]** eraikin aristokratikoa dago, liburutegiaz gain, ekitaldi eta arte garaikideko erakusketa interesgarri ugari programatzen dituen espazioa. Komeni da bertako programazio horren berri izatea uneoro.

Kontxako hondartzara bidean, ehun urte baino

**erdigunean oinezkoentzat jarritako kaleak ezin hobeak dira bertako eskaintza komertzial erakargarriaz eta askotarikoaz gozatzeko**

gehiagoko tradizioa duen beste hornidura-azoketako bat topatuko dugu, **San Martin [10]**, orain eraikin modernoan birkokatutakoa. Barruan eremuko baratzeko produktu freskoak saltzen dituzten postuak daude, baita harategi eta arrandegiak ere.

Easo kaletik jarraituko dugu Londres hotel historikora iritsi arte, hiriaren enblema handienaren aurrean: **Kontxa [11]** eta haren baranda ikonikoa, 1916an udaleko arkitekto izandako Juan Rafael Aldayk diseinatutakoa. Baranda horretatik hondartza nagusira begiratuko dugu.

1845ean, Isabel II.a erregina Kontxara etorri zen medikuek azaleko arazoetarako itsasoko bainuak hartzeko gomendatu ziotenean. Haren atzetik, eta hondartzara joateko moda berriarekin, gorteko gainerako kideak eta gizartearen goi mailako aristokratak iritsi ziren, eta Donostiari jatorri dotore eta berezi hori eman zioten. Ondoren, gainerako guztia iritsi zen: Kantauriko Perla ezizena, turistak eta munduko hondartza urbano ederrena gisa jasotako aitorpena. Gaur, milaka bisitarik jarraitzen dute itsas pasealekuko baranda ezagunetik begira eta hiriaren argazki ikonikoa ateratzen dute, edo hondarretara jaitsi eta oinutsik ibiltzen dira 1.300 metro baino gehiagoko luzeran, edo ur hipnotikoetan bainatzen dira.

Udaletxetik Antigua auzoko tuneleraino ia bi kilometroko ibilbidea dago, eta bidea oinez, korrika ('running-a' pasioz bizi dugu hemen, duela hamarkada ugaritatik) edo bizikletaz egin daiteke, bidegorri erosoari esker. Laster iritsiko gara 'ordulari' ezagunetara eta gero 1912an inauguratutako **La Perla [12]** Talaso-Sport zentroaren eraikin berritura; oraindik ere Belle Époque garaiko estiloaren erakargarritasuna mantentzen du.

Kontxako pasealekuko azken zatia hutsik dago, eraikinen presentziarik gabe. Miramar Jauregitik eta Antigua auzotik oso gertu, badiaren eta Santa Klara uhartearen gaineko ikuspegi pribilegiatuak dituen balkoian, Eduardo Chillida Donostiako artistaren **'Flemingen Monumentua' [13]** eskultura dago.

**Kontxako hondartza da Donostiako postal ezagunena**



**hiri estiloa** Agian beste eremuetan ez bezala laburbiltzen da Erdigunean eta Eremu Erromantikoan hiriaren nortasunaren bereizgarri den "Donostia estiloa": kafe bat Gipuzkoa Plazan, Alderdi Ederreko zaldiko-maldikoa, María Cristina hoteleko eta Victoria Eugenia Antzokiko ikuspegia Zurriola zubiaren atzean, edo liburu-denda txikien eta Erdiguneko balkoien xehetasun modernistak... Horiek guztiek definitzen dute Belle Époque garaiko eta XIX. mendeko udaldi aristokratikoetatik oinordetzan jasotako izaera hedonista eguneratzen jakin duen hiria.

# 3
# Gros eta Egia

Gros Urumea ibaiaren beste aldean hasten da eta, ondoko Egia auzoarekin batera, hiriko eremu bizienetakoa da. Zurriola hondartzaren bidez Kantauri Itsasora begira dagoen abangoardiako lekua. Bertan, surflariak topatuko ditugu kalean surfeko taula eskuetan dutela, zuzeneko musika eskaintzen duten lokalak, mendi bat eta bide-zidorrez betetako parke bat, arkitektura berritzailea, eta handik kale gutxira, kultura garaikidearen zentro bat, programazio mugagabearekin.




Urumea ibaiaren bokalean, Zurriola hondartzaren alboan, Rafael Moneoren hondoa jotako bi harriak ikus ditzakegu: Auditorioa eta Kursaal Kongresu Jauregia (1).



surfa
tokiko moda
gastro

9 13





## gaztea, bizia eta alternatiboa



Hamarkadatan, Gros auzoaren ezaugarri izan ziren bertako tailerrak, lantegiak, zezen-plaza (Txofre, 1973an eraitsia) eta itsasertzeko olatu basatiak. Hala ere, Gros da gaur egun hiriko eremu gazteenetakoa, dinamikoenetakoa eta estimulatzaileenetakoa, txikizkako merkataritza modernoarekin eta pintxo eta 'poteo' kale animatuekin. Duela hogei urte hondartza hobetu eta zabaldu zutenetik, eta gero Kursaal Kongresuen Jauregi eta Auditoriuma eraiki zenetik, auzoa metamorfosia izaten hasi zen, egungo nortasuna ekarri zuen horrek.

Hiriko lehen artelan garaikidea ere hemen egin zen, Grosen: **Kursaal Jauregia [1],** Rafael Moneoren lanak bi eraikin handi ditu, itsas aurrean gelditutako bi harkaitz balira bezala. 'Kuboak' dira Donostiako Zinemaldiko egoitza nagusiak eta ekitaldien agenda interesgarria ere biltzen dute (kontzertuak, musika klasikoa, erakusketak...) eta merezi du kontsultatzea. Azken datua: bi eraikinen iparraldean dagoen zabalgunea da irailean hirira etortzen diren zinema-izarren photocall ofiziala.

Aldaketa horren eragileetako bat **Zurriola Hondartza [2]** da, eta hura gurutzatzen duen itsas pasealekua, itsasoak olatu onak eskaintzen dituenean surflariz betetzen dena. Donostiako gainerako hondartzen izaera lasaia eta dotorea ez bezala, Zurriola hondartza auzoaren izaera moldakorra eta konformagaitzaren isla argia da, eta jende gaztearen gogokoena. Surfeko giroagatik nabarmentzen da, olatu konstanteak eta biziak baititu, eta itsasgora nahiz itsasbehera denean egin daiteke surfean. Gainera, ezin hobea da surfa egiten ikasi nahi dutenentzat, zerbitzuak eskaintzen dituzten eskola asko baitaude. Uztailean, Zurriola izaten da Jazzaldiaren agertoki jendetsuenetako bat. Han soilik dantza daiteke hondar gainean gaua egiten den bitartean. Eta gainera, nudismoa praktikatzeko eremu espezifiko bat du.

**Zurriola hondartza, Gros eta Egia auzoetan mugitzen den guztiaren aurrerapena**

Itsas pasealekuaren amaieran, hiriaren ekialdeko mugan, **Sagues [3]** dago, itsaso gainean ilunabarra ikusteko hiriko leku onenetako bat. Jende asko biltzen duen "horma"



ezaguna, duela hainbat hamarkadatatik, itsasoaren egoerari begiratzera, hitz egitera edo, besterik gabe, eseri eta egotera etortzen diren surflarien, koadrilen edo bikoteen topalekua da. Pasealekuaren amaieratik gertu dagoen eskultura zuri handia **Bakearen Usoa [4]** da, Nestor Basterretxearena, indarkeriaren gainetik hitzaren eta elkarrizketaren boterea sinbolizatzen duen artelana. Artelan honek ematen dio amaiera euskal eskultoreen ibilbideari: Chillidaren Haizearen Orrazia (Antigua) eta Oteizaren Eraikuntza Hutsa (Pasealeku Berria) ere biltzen dira bertan.

Hiriari ekialdean amaiera ematen dion mendi hori **Ulia [5]** da. Haren gailurrean, garai batean, baleak bilatzeko itsasora begiratzen zen begiratokiak zeuden. XX. mende hasieran, Donostiako lehenengo atrakzio-parkeetako bat eraiki zen, bertara funikularraren bidez irits zitekeen eta jatetxeak eta tiro-instalazioak zeuden. Gaur egun, Ulia Donostiako birika berdeetako bat da, hiriko joan-etorrietatik ihes egiteko lekua. Igoerako 20 minutu eskasean, baso eta labarretara irits gintezke, eta hiriaren ikuspegi zoragarriaz gozatu. Ulia menditik etortzen dira Santiago alderantz doazen erromesak. Ezin hobeto balizatutako bide-zidor ugarik gurutzatzen dute mendia, goiz batean txangoak egiteko ezin hobeak dira. Ezagunena alboko Pasaia herrian dagoen Platako Itsasargira doana da, beti itsasoari begirada kendu gabe.

**Tabakalerako eskaintza osatzeko, kafetegi bat dago, moda, arte eta diseinuko produktu originalak eskaintzen dituzten zenbait denda, eta terraza panoramikoa, Urumea ibaira eta hiriko eremu erromantikora ikuspegi bikainekin.**

Grosek ere lokal asko ditu eta haietan Donostiako pintxo onenetako batzuk har daitezke. Oinezkoentzat jarritako Peña y Goñi, eta Zabaleta kaleetan biltzen dira modako pintxoen lokal horietako asko.

Gaur egun ezagutzen dugun Groseko urbanizazioa joan den mendeko 20ko hamarkadan hasi zen. Auzoko eraikin askok garaiko abangoardia arkitektonikoa islatzen dute, eta horietan arrazionalismoa nabarmentzen da. Joera berri horren adibide interesgarriena, **La Equitativa [7]** eraikina da. Haren fatxada kurbadunak ongietorria ematen die Santa Katalina zubitik Grosera sartzen diren guztiei. Beste lan arrazionalista bat **Ezkongabeen Etxea [6]** da (Zurriola pasealekuak Bermingham kalearekin bat egiten duenean), hirian apartamentu txikien lehen eraikina izateagatik deitzen zaio horrela, eta Art Decó izaera duen ataria ere nabarmentzen da.

Grosen hegoaldean Egia dago. Mirakruz kalea gurutzatuta (Gros antolatzen duten kale nagusietako bat), Mandasko Dukearen kalera iritsiko gara, eta Donostiako modako auzo berrian sartuko gara. Egia izan da hiriko ezinbestekoen agendan sartzen azkena, neurri handi batean, **Tabakalerari [8]**, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroari, esker. 2015ean inauguratuta, hiriko antzinako tabako-fabrika da, diziplina anitzeko espazio bihurtuta, hainbat arlo artistiko biltzen dituen programazio oso zabalarekin. Egia hiriko eskaintza musikalaren foku berri bihurtu da gainera. Tabakaleran programatzen diren kontzertuei inguruan zuzeneko musika eta ikuskizunak eskaintzen dituzten tabernak gehitu behar zaizkie.

**Kristina Enea Parkea [9]**
Egiako "green" auzoa dela esan daiteke. Hiriko parke handiena eta basotsuena da, Mandasko dukeak Donostiari egindako oparia (horregatik du haren emaztearen izena), jatorrizko itxura errespetatzeko baldintzapean. Eta halaxe izan da: parkeak garai bateko xarma bera du, bide-zidorren sare osoarekin. Eta goiko aldean, etxebizitza izan zenaren alboan, oraindik ere ikus daitezke askatasun osoz bertan ibiltzen diren paumak.



**auzo gazteak dira, artistikoak, sortzaileak, gelditzen ez direnak, merkataritza-ehuna berritzen dutenak eta beti beste aukera bat bilatu nahi duten pintxoen lokalak biltzen dituztenak.**



**don't Stop!** Grosera joango gara Zurriola zubia gurutzatuta, Tabakalerako aretoak pasatu, Kristina Enea parkeaz gozatu eta eguna Zurriolako hondartzan olatuak hartuz amaituko dugu. Ausartzen al zara?

# 4
# Antigua eta Igeldo

Hiria Antigua auzoan sortu zen duela hamar mende, nahiz eta hiriaren erdigunetik zertxobait urrun egon. Bere hondartza du, atrakzio-parke retroa dagoen mendia, ingeles estiloko errege-jauregia, eta bizitza handia duen merkataritza- eta ostalaritza-gunea. Iritsi da Antiguara daraman tunela gurutzatzeko unea...






ondarreta hondartza
atrakzio parkea
artea

5 25 16



**Hiria amaitzen den tokian, olatuak hausten diren eremuan, Haizearen Orrazia hain dago egokituta inguruari, ezen han bertan jaio zela baitirudi** (10).





## jauregiak eta artea itsasoaren aurrean

Antigua da hiriko auzorik berezienetako bat. Bertan sortu zen lehen biztanleria-nukleoa, Frantziako Sebastian santuari eskainitako monasterioaren inguruan. Gaur egun ezertxo ere geratzen ez den erlijio-konplexua gaur egun Miramar Jauregia dagoen lekuan zegoen. Mendeetan zehar, Antigua nekazari-auzoa izan zen, hiriaren hesiz kanpo kokatuta, Alde Zaharretik ia bi kilometrora. Hortik dator oso nortasun markatua eta bere ohiturak garatu izana. Donostiar askorentzat, Antiguako tunela gurutzatzea beste erritmo bat duen alboko herria bisitatzea bezala da; gainera, familian egiteko planen eskaintza zabala eta erakargarria du.

Hiriaren erdigunetik, Antiguara iristeko modu ugari dago eta beti eskuinean topatuko dugu badiaren ikuspegi ederra: haietako bat Kontxa pasealekutik igarotzen da; itsasoko motiboekin apainduta dagoen **tunela [1]** zeharkatzen du eta 2016ko Kulturaren Europako Hiriburua izan ostean hirian geratu diren ondareetako batzuk dira marrazki horiek. Beste bideetako bat Mirakontxa pasealekukoa da. Aurrekoarekiko paralelo igo eta Miramar jauregiaren atean amaitzen da. Eta, noski, beste bat topatuko dugu Kontxa hondartzan bertan. Gainera, itsasbehera bada, Ondarreta hondartzara iritsi ahal izango gara **Loretopeako pasabidetik. [2]**

Esan bezala, eskuinean itsasoa dugu eta ezkerrean, aldiz, etengabe ikus dezakegu **Miramar Jauregiaren [3]** itxura britainiarra eta dotorea. XIX. mendearen amaierako eraikuntza bitxi horrek Ingalaterrako landazabaleko jauregitxo baten itxura ekartzen du gogora eta 1893. urtetik Maria Kristina erreginaren, Alfontso XIII.aren eta Borboiko Juan Karlos erregearen udako egoitza izan zen. Eremu haren zati onena badiarako bistak dituzten loretegi zainduak dira; ezin hobeak dira etzanda, irakurtzen edo hizketan egoteko. Atzealdean, aldiz, miniaturazko baso atsegin bat dago eta **Matia Kaletik [4]** parketik ateratzen bagara, Antiguako San Sebastianen eliza topatuko dugu. Matia kalea da auzoko kale nagusia eta familia-kutsuko tabernak eta saltoki tradizionalak topatuko ditugu bertan.

Gertu dagoen **Sert Plazan [5]**, auzo-giroaren erdi-erdian oasi erlaxagarria



**Haizearen Orraziaren eta Miramar jauregiaren artean dago kokatuta Ondarreta hondartza eta familian eguna igarotzeko toki ezin hobea da**





**Igeldotik atera dezakegu hiriko panoramika entzutetsuena, badia eta uhartea lehen planoan dituena.**

osatzen dute palmondoek eta iturriek. Aurrerago joanda, Benta Berri izeneko bizitoki-auzoa hasten da. Bertan dago **Musikene [6]** zentroaren egoitza (Euskal Herriko Goi-mailako Musika Ikastegia). Eraikin hori izan da Donostiako arkitektura garaikidearen zerrendan sartu den azkena eta bolumen geometrikoak eta urre-koloreko panelak dira bertako ezaugarri nagusiak. Asmatuko al zenuke zer musika-tresna imitatzen duen? (*)

Berriro ere hondartzarantz itzulita, **Zubimusu Parkera [7]** iritsiko gara. Gune natural polita eta ia ezkutuan dagoena da, eta hiriko baratze txiki baten itxura du. Urmaela eta orduero dantza ikusgarri bat egiten duen eta "dantzarien" jantzi tipikoak soinean dituen panpina topatuko ditugu bertan. Asko gustatzen zaie haurrei.

Matia kalearen iparraldera daude **Ondarretako txaletak [8]**; kaleen lauki-sare atsegina da. Ia ez da zirkulaziorik izaten bertan eta udarako eta bizitzeko XX. mendeko txalet erakargarriak ikus daitezke. Era askotako estilotakoak topa ditzakegu: euskal estilokoak, arrazionalistak, Portugaleko azulejoekin apaindutakoak eta kutsu neoklasikokoak.

Txaletak **Ondarreta Hondartzara [9]** eta lorategietara (Maria Kristina erreginaren omenezko estatua bat dago bertan) iristeko sarrera bikaina dira. Horixe da familiek eta taldeek gustukoen duten hondartza: zabala, erosoa, ur barekoa, olatu gutxikoa eta ertzean lehertzen direnekoa da. Udan, gainera, hondartzako tabernak, haur-parkeak eta karpa eta toldoak alokatu ahal izateko zerbitzua izaten dira bertan familiako "kanpalekua" bertan ezarri ahal izateko. Adin guztietako haurrentzako pizgarriak topatuko ditugu hareatza horretan: hormaren alboan hausten diren olatuak hartzetik hasi eta, itsasbehera dagoenean, arroketan karramarroak harrapatzeraino. Bestalde, Ondarreta Santa Klara uharteraino kilometro erdiko zeharkaldian igeri egiteko abiapuntu bikaina da. Ibilbide hori abentura bikaina da eta guraso askok egiten dute seme-alabekin batera. Bide erdian, gainera, tranpolinak eta txirristak dituzten plataformak daude (gabarroi entzutetsuak), bertan atseden hartu ahal izateko.

Ondarretako eta hiri-kutsuko Donostiako lurrak amaitzen diren tokian, Igeldo mendiaren hegaletan, dago **Haizearen Orrazia [10]**, hiriko eskultura-ikono nagusia. Gune hori Eduardo Chillida eskultore donostiarrak (hark egin zituen arroketatik jaiotzen direla diruditen altzairuzko "orraziak") eta Luis Peña Ganchegui arkitektoak (hura arduratu zen urbanizazio-lanaz) elkarrekin egindako lana da. Eguzkipean zein euritan, tokiak donostiarrentzat esanahi magikoa duela esan dezakegu. Hori dela eta, egunero, pertsona asko joaten da bertara sasoian egoteko eta, bide batez, zerumugara begira egoteko asmoz. Pasealeku Berria da, Haizearen Orraziarekin batera, erabat donostiarra den denbora-pasa bat praktikan jartzeko toki onenetako bat: itsasoa haserre dagoen egunetan, olatuei begira egotea. Horretarako, nahikoa da arropa egokia eta aterki gogor bat eramatea, eta denboraleak eskaintzen duen ikuskizun zoragarriaz gozatzeko oinarrizko arreta-neurriak hartzea.

(*) Piano bat

**Eduardo Chillidaren "Haizearen Orrazia" eskulturan paisaia eta artea, itsasoa, burdina eta harria bateratzen dira. hori guztia dela eta, topagune magikoa da donostiarrentzat eta bisitarientzat.**



"Orraziaren" eta itsasoaren beraren gainera datorrela dirudien mendi hori **Igeldo [11]** da, badiaren inguruan dauden mendixka guztietan altuena. XX. mendearen hasieran, gailurrean **Atrakzio Parkea [13]** eraiki zuten eta gaur egun arte iraun du jatorrizko espirituaren zati nagusia mantenduta. Horretarako lagungarria izan da, esate baterako, egurrezko **Funikularra [12]**. Goraino iristen da ezinezkoa dirudien malda gaindituta. Bertan, garai batean itsasargia eta baleak ikusteko behatokia zena eta "vintage" estiloko atrakzio batzuk topatuko ditugu: Ibai Misteriotsua eta Suitzar Mendia, esate baterako.

**familia, gaur Antiguara joango gara!!** Antiguako tunela zeharkatzen duzuenean, has zaitezkete erlaxatzen; Donostia osoan "herri-izaera" handiena duen auzoan zaudete. Miramar jauregiko lorategietatik badiara dauden bistak, hondartza-egun lasaia Ondarretan eta Igeldoko Atrakzio Parkeko amaiera bikaina dira familia osoa gozarazteko planetako batzuk..

# 5
# Amara eta Erriberak

Hiriko auzo berrienetatik Urumea ibaian gora egiteko unea da. Parkeak, pintxoen tabernak eta hamaiketakoa egiteko tabernak topatuko ditugu bertan. Ibaiertzeko pasealekuan topatuko ditugu kirol-zentro nagusietako batzuk, Pariseko kutsu handiena duten Donostiako fatxada batzuk eta arkitektura modernoaren ezusteko batzuk.






anoeta estadioa
kirol-azpiegiturak
arkitektura

21 26 28



**Erriberak auzoan dago Iesu Eliza modernoa, Rafael Moneo arkitektoak diseinatua** (11).





## Urumea ibaiaren parean dauden kirol auzoak



Urumea ibaiaren ertzeko pasealeku luzeak kirola egiteko bikainak dira.

**Donostiara egindako bisita partida-egunean gertatzen bada, aukera bikaina izango da zaletu txuri-urdinek jartzen duten giroa ezagutzeko.**

Duela ehun urte, Donostia europarren udako oporretan erreferentziazko hiria zenean, Amara Berri auzoa ez zen existitzen. Lursail haiek oraindik ia kanalizatu gabe zegoen Urumea ibaiko paduretakoak ziren. Gaur egun arte iraun duen Amara Zaharra garai hartan ere bazegoen. **Easo Plazaren [1]**,inguruan sortutako auzo ezagun hori eremu erromantikoaren inguruak ezagutzeko abiapuntu bikaina da eta bertan daude pintxoen taberna alaienak. Musika-kioskoaren beste aldean dago, kostalde osoa zeharkatuz, Donostia Frantziako mugarekin eta Bilborekin lotzen duen Euskotrenen geltokia.

**Araba Parkea [2]** toki hostotsua da eta bertako puntetako batean Maria Kristina erreginaren oroigarria topa dezakegu. Amara hiru etorbide nagusiren inguruan egituratuta dago: **Antxo Jakitunaren Hiribidea [3]**, **Madrid Hiribidea [4]**, eta **Karlos I.aren Hiribidea [5]**; era berean, aipatu beharrekoak dira kale hauek ere: **Isabel II.a [6]** eta **Baleazaleak [7]**, edo **Karlos I.aren mendebaldera dauden plazak [8]**. Horietan guztietan, eskaintza gastronomiko handia topa dezakegu.

**Anoeta Estadioa [9]** da Amara hegoaldetik ixten duen eraikina eta Lehen Mailan futbol-partidak jokatzen dituen hiriko taldearen, Real Sociedaden, zelaia. Ehun urte baino gehiago dituen taldearen historia jasotzen duen museoa ere badu eraikinak. Anoeta inguruan, kirol-azpiegituren eskaintza zabala topa dezakegu: igerilekuak, kiroldegiak, pilotalekua, skate parka, belodromoa, Illumbe zezen-plaza (horrez gain, erabilera anitzeko gune horretan jokatzen ditu goi mailako partidak Gipuzkoa Basketek) eta abar. Guztiak daude irekita kirola egiteko zein bertan jokatzen dituzten kirolen bateko partidaren bat ikusteko. Gertutik ezagutu nahi al duzu pilota? Kontsultatu denboraldiko Atano III pilotalekuko programazioa.

Ibaiaren ibilgutik gertu dagoen **Erriberak [10]** auzoan daude **Iesu Eliza [11]** modernoa eta indarkeriaren, gerren eta terrorismoaren biktima guztien omenez eraikitako Memoriaren Lorategia. Eliza Rafael Moneok egin zuen eta bertako austeritate bisuala eta minimalismoa direla eta harridura eragiten du.

Hiriaren erdigunera itzultzeko, **Urumea Ibaiarekiko paralelo igarotzen den pasealekua [12]** erabiltzea gomendatzen dugu; lehenengo, **Bizkaia Pasealekutik**, eta gero **Gernikako Arbolaren pasealekutik**. Bertan, Urumea ibaira begira dauden Prim kaleko eraikinak ikusteko aukera izango dugu. Kutsu paristarra duen ibilbidea da eta azulejo modernistak eta lorategiz hornitutako patioak topatuko ditugu bertan. Korri egitea gustuko baduzu, ibilbide bikaina ere bada.

Ikusi itsasora iritsi arte dauden sei zubi horien estilo arkitektoniko ezberdinak. Denboran zehar egindako bidaia egingo duzu!

# 6
# Aiete eta Miramon

Aieteko eta Miramoneko parkeek ezaugarri komun gutxi dute; salbuespen bakarra haien kokapena da: izan ere, biak hiria hegoaldetik ixten duen muinoan daude. Hiriko auzo altuetan daude (garai batean, baserriz eta sagardotegiz betetako eremua zen). Baso eta lorategiez gain, hainbat sorpresa topatuko dugu bertan: dorre neogotikoak, forma erromatarrak dituen anfiteatroa, Zientziaren Museoa eta era askotako jendea jaso izan duen XIX. mendeko udako jauregia, esate baterako.






zientzia eta teknologia
eremu berdeak
arkitektura

19 24



**Aieteko jauregia, 1878ko eraikin neoklasikoa. Frantziar estiloko lorategia, ur-jauzia eta baso hezea ditu inguruan. Eta baita liburutegia ere** (1).





## abangoardia eta zientziaren arteko birika berdea

Donostia profil leuneko muinoz inguratuta dagoen hiria da eta haietako batean dago Aiete auzoa: bizitoki lasai haren goialdean **Aieteko Jauregia eta Parkea [1]** daude. Guztia dago Baileneko duke-dukesak 1878an eraikitzeko agindu zuten eraikin neoklasiko horren inguruan. Espainiako errege-erreginen udako egoitza izan zen (Isabel II.etik hasi eta Alfontso XIII.era arte), eta baita Franco diktadorearen udako egoitza ere 1941 eta 1975 artean. Uda-garaiko ministroen kontseiluak ere egin zituzten horma horien artean. Eraikinaren inguruan estilo frantziarreko lorategi monumental zabala (beltxargak eta ahateak bizi diren urmaelarekin), kobazulo bat eta arroka artifizialarekin egindako ur-jauzia daude, eta iparraldean, aldiz, ehun urte baino gehiagoko hainbat zuhaitz eta neurri handiko sekuoiak ikus daitezkeen baso hezea.

## gaur egun, eraikinean Kultur Etxea bisita daiteke

Hernanira doan errepide zaharrean aurrera eginda, Donostiako beste parke handira, Miramonera, iritsiko gara. Oinezkoentzat egokitutako paraje basatiagoa da. Bertan dago **Katxola [2]** izeneko baserri zaharberritua. Sagardoa egiten dute bertan modu artisauan, hainbat mendetan egin izan duten moduan, parkean dauden berrehun sagarrondo inguruk emandako lehengaia erabilita. Intereseko beste monumentu batzuk dira hauek: **Anfiteatroa [3]**, aire zabaleko ekitaldiak egiten dituzten estilo erromatarreko gune eszeniko bitxia, eta **Arbideko Dorreak [4]**. 1904an hiriaren erdian (Urumea ibaiaren alboan) eraiki zituzten eta, 1979an, desager ez zitezen, harriz harri, gaur egun dagoen kokalekura eraman zituzten bi eraikin neogotiko dira. Haien artean, **Miramoneko Basoa [5]** zeharkatzen dituzten bidexkak topatuko ditugu. Bertako fauna eta floraren berri ematen duten panelak daude eta Nordic Walking egiteko zirkuituak ere seinaleztatuta ikusiko ditugu.

Parketik gertu dagoen eremu urbanizatuan dago **Eureka Zientzia Museoa [6]**. 170 modulu interaktibo baino gehiago ditu eta partaidetza eta esperimentazioa bultzatzen ditu. Gainera, animalia bizidunen 20 espezie jasotzen dituen aretoa ere ikusgai dago. Museoaren alboan, aipatu beharrekoa da “Gipuzkoa Miniaturan” izeneko aire zabaleko erakusketa. Lurraldeko eraikin historiko enblematikoenetako batzuen hogeita hamar kopia zehatz baino gehiago biltzen ditu eskala murriztuan.

Miramoneko parke teknologikoko eraikin modernoenean dago **Basque Culinary Center [7]**, Europako bigarren unibertsitate gastronomikoa eta abangoardiako zentroa. Bertan, langile kualifikatuak trebatzen, sukaldeko arteen inguruko ikerketak egiten edo ikastaro gastronomikoak eskaintzen dituzte hainbat hizkuntzatan. Jolas bat proposatu nahi dizugu: bilatu edozein sukaldetan oso ohikoa den elementu batekin duen antzekotasuna (*).






(*) Plater batzuk pilatuta



# zer egin

DENBORA APROBETXATZEAREN ARTEA

34 _ 94

## planak


gastronomikoak — 34
kulturalak — 54
kirol-planak — 68
slow tourism — 74
familian — 78
gauekoak — 82
erosketa-planak — 85

Donostian, sukaldaritzak adierazten du agian hitzez adierazten ez dakiguna. Pintxo eta plater bakoitzak bere lengoaia du, eta horren bidez saiatzen gara ahaztu ezingo dituzun emozio bereziak transmititzen. Zerbaitegatik izan da 2018ko Munduko Turismogune Gastronomiko Onena moduan izendatua.



# gastronomi planak

EMOZIOA PREST DAGO



## Donostia, aparteko sukaldaritza

Lapikotik jan dezakezu, edo pintxoak, eserita edo zutik, leku dotorean edo herri-ostatu batean. Berdin du. Ondo jaten da hiri honetan. Modu guztietan.

**Hiri honetan garrantzi handia ematen zaio sukaldaritzari, haren adierazpen guztietan. Hori dela eta, gastronomiaren ikur unibertsal bihurtu da, eta ongi merezita.**

Nahikoa da Alde Zaharrean edo hiriko beste auzo batzuetan buelta bat ematea, Donostian ostalaritzak duen presentzia handiaz ohartzeko. Hain da anitza, zabala eta kalitatekoa eskaintza, ezen posible baita hiria hamarnaka aldiz bisitatu eta lokalik ez errepikatzea, eta, hala ere, inpresio ezin hobea izatea. Gastronomiaren ikuspegitik, Donostiak ez du parekorik.

Izan ere, hiriko ehunka tabernatako pintxo aukera izugarriaz gain, beste aukera ugari ere badira hirian. Badira elkarte gastronomikoak, sagardotegiak, merkatuak eta kalitate goreneko bertako produktuak dituzten gourmet dendak, itsaskitegiak, sukaldaritza-unibertsitateak, egile-jatetxeak eta, batez ere, Michelin izarren mundu mailako kontzentraziorik handienetako bat.

Bai, jatearen plazeraren adierazpen gorena da Donostia. Bertan bizi dira sormena, edertasuna eta magia. Eta bertan bizi dira sukaldaritza onak helarazten dituen emozio zirraragarri horiek guztiak.

# 19 Michelin izar

## Michelin izarrak nonahi

**→ zerbait mahai gainean jartzen dizute (Arzak jatetxeko “Lupia bere osotasunean” hau, adibidez) ireki beharreko oparia balitz bezala. Sorkuntza berritzailea da, harrigarria, magikoa eta, noski, oso oso gozoa. Ez dakizu oso ondo zer den, baina ez duzu ahaztuko.**



**Hartu konpasa eta jarri Donostiako mapa baten gainean.** Sartu punta udaletxean eta 25 kilometroko erradioa jarri. Ba al dakizu zenbat Michelin izar dagoen egindako zirkulu txiki horretan? Autoz hamar minutu eskaseko bidea dago hor barruan… 19 daude. Are gehiago, Estatuan dauden hiru Michelin izarreko hamaika jatetxeetatik hiru Donostian daude: **Arzak, Akelarre** eta **Martín Berasategui.** Eta beste bost jatetxek dute garaikurrik handiena den hori. **Mugaritz** eta **Amelia**, bi izarrekin, eta **Kokotxa, Mirador de Ulia** eta **eMe Be Garrote** izar banarekin. Urrutixeago, Hondarribian, **Alameda** jatetxea dago, Oiartzunen, **Zuberoa,** eta Getarian, **Elkano**; Michelin izar bana dute hiruek. Oso egoera berezia da. Egia esan, Japoniako Kyoto izan ezik, munduan ez dago beste lekurik metro koadroko kontzentrazio handiagoa duenik. Donostian sukaldea ideia-laborategi bihurtu dugu eta mundu osoko aitorpena jasotzen duen sormen-tailerra. Gastronomia artea dela uste dugu, ingeniaritza, nortasun-ikurra. Baina ez dezagun gehiago hitz egin. Jan dezagun.

### Arzak ★★★

**Chef: Juan Mari Arzak**
Jose Elosegi Alkatea etorbidea, 273
Donostia (G2)
T. 943 27 84 65 / T. 943 28 55 93
www.arzak.es

G 68

Igande eta astelehena

### Akelarre ★★★

**Chef: Pedro Subijana**
Aita Orkolaga Pas., 56 · Igeldo
Donostia / San Sebastián (A2)
T: 943 31 12 09
www.akelarre.net

V O G 65

Iraila-ekaina: igande gauak, astelehenak eta astearteak. Uztaila-iraila: igande gauak eta astelehenak
Itxita otsailaren 25era arte.

### Martín Berasategui ★★★

**Chef: Martin Berasategui**
Loidi kalea, 4 · Lasarte-Oria
T: 943 36 64 71
www.martinberasategui.com

G 50

Igande gaua, astelehena eta asteartea, egun osoa

### Mugaritz ★★

**Chef: Andoni Luis Aduriz**
Otzazulueta Baserria /
aldura aldea, 20 zk. · Errenteria
T: 943 51 83 43 / 943 52 24 55
www.mugaritz.com

V O G **kartako 50 menu eta hitzartutako 175 menu**

2022ko apirilaren 30 arte, eta azaroaren 1etik abenduaren 31ra.



*2021ko azaroan eguneratua

## Michelin izarrak dituzten beste jatetxe batzuk

Eta iristen azkena

AMELIAREN BIGARREN IZARRA

### Amelia ★★

Donostia / San Sebastián
T: 943 84 56 47
www.ameliarestaurant.com

Igande, astelehen, astearte eta asteazken eguerdian.

### Alameda ★

Hondarribia
T: 943 64 27 89
www.restaurantealameda.net

Astelehena eta asteartea, eta asteazken, ostegun eta igandetako afarietan.

### Elkano ★

Getaria
T: 943 14 00 24 / 649 33 52 74
www.restauranteelkano.com

Asteartea, egun osoa.
Gainerako egunetan, bazkaria bakarrik.

### eMe Be Garrote ★

Donostia / San Sebastián
T: 943 22 79 71
www.emeberestaurante.com

Igande eta astelehena egun osoa.

### Kokotxa ★

Donostia / San Sebastián
T: 943 42 19 04
www.restaurantekokotxa.com

Igandean eta astelehenean, egun osoan.

### Mirador de Ulia ★

Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 27 27 07
www.miradordeulia.es

Igande gauak, astelehenak eta astearteak egun osoan.

### Zuberoa ★

Oiartzun
T: 943 49 12 28
www.zuberoa.com

Azaroak 1etik ekainak 1era: igande gaua, astearte gaua eta asteazkena egun osoa. Ekainak 1etik urriak 31ra: igande eta asteazkenak egun osoan.



# pintxoak

## lurrin gastronomikoak

**Donostiako jatetxeetako menu eta kartak bikainak diren arren, pintxoak bertako sukaldaritzaren miniaturazko erakusgarriak direla esan dezakegu. Esentzia. Gure sukaldaritzaren arima.** Jatorriz, pintxoa ogi-xerra baten gainean jarritako janari-anoa zen, txotx batekin eusten zena. Gaur egun, denetik dago: errazak, baina ezin hobeak direnak, betiko patata-tortilla kasu, edo Gilda zoragarria, Donostian sortutakoa: pipermin, antxoa eta olibarekin egindako pintxo mina. Rita Hayworthen omenez sortu zen. Eta noski, badaude pintxo sofistikatuak ere, goi mailako sukaldaritzaren adibideak, miniaturan eginda, dosi txiki eta gozoetan kontzentratutako zapore landuak.

Pintxoak jatea ekintza soziala da eta gure kultura ezagutzeko modu bat. Barre egitea, hitz egitea, mugitzea eta dibertitzea konbinatzen dituen ikuskizuna da.








### HASI BERRIENTZAKO GOMENDIOA

**Taberna bakoitzak bere pintxo izarra du. Zein den ez badakizu, edateko zerbait eska dezakezu eta bertakoek zer hartzen duten ikusi. Gero eskatu zuk ere gauza bera**

— 40-41

# pintxoak jateko gida

bertako jarduera

**Sukaldaritza horretaz goza dezakezu Alde Zaharreko, Erdiguneko, Groseko eta Donostiako beste auzo batzuetako tabernetan. 4 edo 5 tabernatara joatea gomendatzen dugu, eta bakoitzean edari batekin pintxo bat edo bi dastatzea. Aholku bat: ez ahaztu zenbat pintxo jan dituzun. Bukaeran galdetu egingo dizute.**



- **Pintxo hotza baldin bada, barran eskuragarri egon ohi da, eta zuzenean hartzen da.**
- **Pintxo beroa baldin bada, zerbitzariari eskatu behar zaio.**
- **Pintxoak jaterakoan, taberna bakoitzean kontsumizio bat (pintxoa eta edaria) hartzea da normalena, eta gero beste taberna batera joatea.**
- **Amaieran ordaindu ohi da. Kuadriletan txandaka ordaintzeko ohitura izan ohi da, edo "bote" edo "kutxa" bat jartzen da hasi aurretik (taberna bakoitzean bakoitzak berea ordaintzea ez da batere ohikoa).**

## auzo bakoitzeko
# pintxorik onenak

bertako jarduera

# Parte Zaharra

## tradizioa

Gure pintxoen jatorria eta arima alde zaharreko tabernetan dago. izaerarik eta tradiziorik handieneko oinarrizko gauzetako batzuk eremu honetan daude, proposamen berriez ere horniturik.




### 1_ La Viña

Gazta- eta antxoa-tututxoa



Abuztuaren 31, 3 · (1E)
T: 943 42 74 95
www.lavinarestaurante.com

Astelehena G

### 2_ Txuleta

Txuletazko kroketa



Trinitate plaza, 2· (2E)
T: 943 44 10 07
www.txuletarestaurante.com

Astelehen arratsaldean; asteartean, egun osoan. G V 95

### 3_ Gandarias Jatetxea

Txangurro-tartaletak



Abuztuaren 31, 23 · (2E)
T: 943 42 63 62
www. restaurantegandarias.com

abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean. G 80

### 4_ Casa Vergara 1948

Bakailao-arroka gabardina erara pil-pil emultsioarekin



Nagusia, 21 · (2E)
T: 943 43 10 73
www.grupogarrancho.com

Ez du ixten

### 5_ Bartolo etxea

Foie plantxan



Fermin Calbeton, 38 · (2E)
T: 943 42 02 79
www.bartoloetxea.com

Udan ez dute ixten. Udatik kanpo, astearteetan G 80

### 6_ Zumeltzegi

Zapo broxeta



Fermín Calbetón, 15 · (2E)
T: 943 42 82 10
restaurantezumeltzegidonostia.com

Ostegun eta igande gauetan neguan G 45

### 7_ Haizea

Bakailao bricka



Aldamar, 8 · (2E)
T: 943 42 57 10
https.://facebook.com/BarHaizea

Igandeak eta jaiegunak arratsaldean G

# Erdigunea eta Gros

## nazioarteko ukitua

Hiriko txoko hauetan, pintxoek beren izaera nazioarteko eraginekin uztartzen dute. Erdiguneko eremu dotorean klasikoagoak eta sofistikatuagoak dira, Frantziako sukaldaritzaren eraginarekin, eta abangoardistagoak eta mestizoagoak, aldiz, Gros auzo dinamikoagoan eta berriagoan.




### 1_ La Perla

Hirugiharra bere saltsan tenperatura baxuan



Kontxa pasealekua, s/n Edificio La Perla · (3D)
T: 943 46 24 84
www.la-perla.net

Egunero irekita, 09:00etatik 20:30era (tabernako ordutegia). G V O 50/60

### 2_ Rojo y negro

Otarrainxka broxeta emmental gaztarekin tenpuran



San Martzial, 52· (3E)
T: 943 35 83 82
www.rojoynegrodonosti.es

Urtarrilak 1 G 40

### 3_ SM Café Bar

Odolki kurruskaria pikillo-saltsarekin eta karamelizatutako pikuarekin



San Martin Merkatua
Urbieta, 6 - Local 20 (3E)
T: 943 42 76 10

Igandeak eta jaiegunak G

### 4_ Iturrioz

Bakailaoa Club Ranero eran



San Martín, 30 · (3E)
T: 943 42 83 16

Igandea G

### 5_ Antonio Bar

Kantauriko antxoa gazitua piperminarekin eta piper berdearekin



Bergara, 3 · (2E)
T: 943 42 98 15
www.antoniobar.com

Igandeak eta jaiegunak G

### 6_ Oquendo

Etxean egindako Gourmet txibiak



Okendo, 8 · (2E)
T: 943 42 07 36
www.caferestauranteoquendo.com

Asteartea

### 7_ Taquería Kursaal

Cochinita Pibil taco eta guakamolearekin



Ramón Mª Lili 2 · (2F)
T. 943 35 93 21
www.taqueriakursaal.com

Igandeak arratsaldean G

Pintxoen eta jatetxeen fitxen interpretazioa

(2E) Mapan non dagoen _ 110 | Asteko atsedena | Sukaldea egun osoan irekita | Pintxo izarra | V Begetarianoak | O Diabetikoak | Zeliakoak | G Euskadi Gastronomika | nº (X) Edukiera

# gosari onenak

## eguneko lehen minututik

Eguna gastronomia bizi duen hirian hasteak lehen unetik esperientzia bereziaz gozatu ahal izatea esan nahi du. Otordu guztiak dira guretzat garrantzitsuak, eta zure gosaria are gehiago.




### 1_ Avenida XXI

Avenida XXI tortatxoak



Askatasunaren hiribidea, 21 · (2E)
T: 943 42 60 54
www.farfalle.es

Igandeak eta jaiegunak (20/01 eta 15/08 izan ezik) G V O

### 2_ Victoria Café

Gosariak eta aperitiboak



Argentinako Errepublikoa, esq. Plza Okendo (2E) · T: 943 42 03 44
www.victoriacafe.es

Urria-maiatza: astelehenetan G







# jatetxeak

## ahoa ur bihurtuko zaizu

**Donostiako jatetxeak dira gure hiriko bisitariak erakartzen dituzten motibazio nagusietako bat.**

Erreferente gastronomikoa gara mundu mailan, eta gure lurraldeari, paisaiari, jaiei eta jendeari lotutako kultura dugu. Baina ezagutza hori ez dugu ezkutuan gordetzen. Basque Culinary Center eskolan goi mailako ikasketak eskaintzen dizkiete mundu osoko profesionalei. Era berean, sukaldaritza-eskolak ematen dituzte ikasi nahi duen ororentzat eta gure kultura gastronomikoaren sekretuekin ongi pasa nahi dutenentzat.

## Plazer donostiarrak Animatuko al zinateke horiek prestatzera?

- **Txangurroa** labean prestatzen da.
- **Bakailao-kokotxak edo legatz-kokotxak.** Bakailaoaren edo legatzaren kokots azpiko zatia da. Buztinezko kazolan egiten da, oliba-olioarekin eta baratxuriarekin.
- **Legatza koxkera-erara.** Buztinezko kazolan egiten da, txirlekin, ilarrekin eta perrexilarekin, eta moztutako arrautza gogortuekin eta zainzuriekin.
- **Bakailao-tortilla.** Erraza eta gozo-gozoa.
- **Bakailaoa pil-pilean,** oliba-olioarekin, baratxuriekin eta piperminekin eginda.
- **Idi-txuleta.** Euskadin haragi bikainak daude eta, beraz, ezin duzu aukera galdu parrillan egindako plater gozo eta xamur hau dastatzeko.

# Parte Zaharra




## sukaldaritza tradizionala

### 1_Bodegón Alejandro _2E

Garaian garaiko platerak

**Karta: 45€**
**Dastatze-menua: 52€**

Fermin Calbeton, 4 · T. 943 42 71 58
www.bodegonalejandro.com

G ⚘ O

Astelehenean eta asteartean egun osoan itxita (maiatzetik urrira ez du ixten) — 60

### 2_Gandarias Jatetxea _2E

Joselito Iberikoak, eguneko arrain freskoa, txuleta eta azpizuna

**Karta: 40€-45€**

Abuztuaren 31, 23 · T. 943 42 63 62
www.restaurantegandarias.com

G ⚘ V ◷

25/12 eta 01/01 — 80

### 3_Juanito Kojua _2D

Berezitasuna itsaskietan, haragietan eta parrillan egindako arrainetan. Haztegi propioa. Sasoiko produktuak

**Eguneko menua 35€** BEZa barne edaririk gabe
**Karta: 68€**
**Dastatze-menua: 65€** BEZa barne edaririk gabe

Portu, 14 · T. 943 42 01 80
www.juanitokojua.com

G V ⚘ O

Igande gaua — 110

### 4_Restaurante Casino Kursaal _2E

Casino Kursaaleko jatetxea

**Zortearen menua: 0€tik 36€ra**

Kale Nagusia, 1 · T. 943 42 92 14
www.casinokursaal.com

V ⚘ O

Igandetik asteazkenera — 20

### 5_Txoko _2D

Produktuaren sukaldaritza, arrozak eta arrainak

**Karta: 25€ - 35€**
**Taldeko menua: 30€**

Mari, 12 · T. 943 42 54 12
www.restaurantetxoko.com

G

Igande gauak eta astelehenak — 75

### 6_Txuleta _1D

Txuleta-kroketak, txuleta eta olagarroa parrillan

**Eguneko menua: 22€**
**Karta: 40€ - 50€**
**Dastatze-menua: 35€**

Trinitate Plaza, 2 · T. 943 44 10 07
www.txuletarestaurante.com

V G

Astelehen gauak eta asteartea — 60

### 7_Ubarrechena _2D

Paellak eta haragiak txingarretan

**Eguneko menua: 26€**
**Karta: 40€- 45€**

Kale Nagusia, 16 · T. 943 42 83 52
www.ubarrechena.es

G ◷

Ez du ixten — 115

### 8_Zumeltzegi _2E

Broxetak, haragiak parrillan eta arrainak

**Eguneko menua: 25€**
**Karta: 30€-45€**
**Dastatze-menua: 37€**

Fermin Calbeton, 15 · T. 943 97 01 53
www.restaurantezumeltzegidonostia.com

G V ⚘ O

Neguan: osteguna eta igandea gaua / Udan: ostegun eguerdia — 52

## sukaldaritza eguneratua

### 9_Astelena 1997 _1E

Arrainak eta haragiak

**Karta: 60€**
**Dastatze-menua: 55€**

Euskal Herria, 3 · T. 943 42 58 67
www.restauranteastelena.com

G

Igande eta asteazkeneko gauak. Astelehena egun osoa — 110

### 10_Xibaris _2E

Anoak, arrain freskoa eta Angus arrazako Premium txuleta

**Eguneko menua: 22€-32€**
**Karta: batez besteko prezioa 30€**

San Jeronimo, 20 · T. 943 42 11 27

V G ⚘

Astelehen gauak eta astearte gauak — 60

## merkatuko sukaldaritza

### 11_Bokado Mikel Santamaria _2C

Garaiko platerak eta arrainak

**Karta: 50€-60€**
**Dastatze-menua: 55€-65€**

Pza. Jaques Cousteau, 1 · T. 943 43 18 42
wwww.bokadomikelsantamaria.com

G V ⚘

Astelehena, astearte gaua eta igande gauae — 80

Jatetxeen gutxi gorabeherako ordutegiak:
Eguerdietan: 13:30etik 15:30era.
Gauetan: 20:30etik 22:30era.

***Zehaztutako prezioak orientagarriak dira.**

# Erdigunea eta Gros




## sukaldaritza tradizionala eta pintxos

### 1_Itsaspe Donosti _3E

Orburu konfitatuak (sasoian), Itsaspe muskuiluak (sasoian), txuleta, bakailao-tortilla, torrada karamelizatua

**Eguneko menua: 20€**
**Karta: 30€-35€**
**Asteburua: 25€**

San Martzial, 8 · T. 943 20 55 47
www.itsaspedonosti.com

O V ⚘ — 170-180

Ez du ixten

## merkatuko sukaldaritza

### 2_Oquendo _2E

Giro zinematografikoa duen bistroa

**Eguneko menua: 18€** BEZa barne
**Karta: batez besteko prezioa 23€** BEZa barne
**Asteburuko menua: 23,5€** BEZa barne

Okendo, 8 · T. 943 42 07 36
www.caferestauranteoquendo.com

V G ◷

Astearteak — 70

## egile-sukaldaritza

### 3_Bar Restaurante Biarritz _3D

Sekretu iberikoa, mostaza eta bertako sagarra

**Karta: 40€**

Zubieta, 56 · T. 943 42 33 49
www.restaurante-biarritz.com

⚘ G

Igande gauak eta astelehenak — 56

## merkatuko sukaldaritza tradizionala

### 4_La perla _3E

legatza saltsa berdean, bakailaoa, erreboiloa, txahal-masailak, banillazko torrada, gazta-tarta

**Sasoiko menua: 36€**
**Karta: 50€ - 60€**
**Dastatze-menua: 53,5€**

Kontxa Pasealekua, z/g Edif. La Perla · (3D)
T. 943 46 24 84
www.la-perla.net

O V ⚘ G — 110

Igande gauak, astelehen gauak eta asteartea (Neguan)

## mediterraneoko sukaldaritza

### 5_Via Fora _4F

Arrossos

**Eguneko menua: 14€**
**Karta: 30€**
**Dastatze-menua: 32€**

Federico Garcia Lorca Pas., 10
T. 943 47 09 89
www.viaforadonostia.com

◷

Ez du ixten — 60

## nazioarteko sukaldaritza

### 6_Topa sukalderia _2F

Guacamolea, takotaloak, cevicheak (Euskal Herriko-Latinoamerikako sukaldaritza)

**Karta: 25€**

Agirre Miramon, 7 · T. 943 56 91 43
www.topasukalderia.com

G ◷

Astearteetan (azaro-apirila) Asteazken eguerditan Itxita: abenduaren 24an, 25ean eta 31n, eta urtarrilaren 1ean — 65

biarritz
BAR & RESTAURANTE





BAR RESTAURANTE BIARRITZ
ZUBIETA 56 Pº DE LA CONCHA S/N
SAN SEBASTIÁN
Tlfno.: 943423349
www.restaurante-biarritz.es

**Pintxoen eta jatetxeen fitxen interpretazioa**

(2E) Mapan non dagoen — 110 | 🔒 Asteko atsedena | ◷ Sukaldea egun osoan irekita | Etxeko espezialitatea
V Begetarianoak | O Diabetikoak | ⚘ Zeliakoak | G Euskadi Gastronomika | nº (X) Edukiera

# Antiguo eta Igeldo inguruko jatetxeak




## sukaldaritza tradizionala

### 1_Asador Portuetxe erretegia _ 6A

Sasoiko barazkiak, arraina eta behi-txuleta parrilan erreta
Karta: **65€-75€**
Igara bidea, 71 · T. 943 21 50 18
www.portuetxe.com
G O V
Igande gauak urriaren 15etik ekainaren 15era — 180

### 3_Rekondo _ 4A

Arroza txirlekin, txangurroa eta txuleta
Karta: **95€-100€**
Igeldo Pas., 57 · T. 943 21 29 07
www.rekondo.com
G V O
Asteartea eta asteazkena Abenduaren 24an, 25ean eta 31n, eta urtarrilaren 1ean — 80

### 2_Tenis Ondarreta _ 3B

Arrainak eta haragiak
Eguneko menua: **29€**
Karta: **45€ - 50€**
Eduardo Chillida Pas., 9 ·
T. 943 31 11 50 / 943 31 41 18
www.tenisondarreta.com
G O V
Igande gauez, astelehen osoan eta astearte gauez itxita. — 275

### 4_Txinparta

Txuleta eta arraina
Eguneko menua: **16,95€**
Karta: **30€-tik**
Illarra Berri, 2 · T. 943 22 47 00
www.txinparta.com
V G
Igandea eta astelehena, gaua — 100



## sukaldaritza tradizionala eta parrilla

### Araeta sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrillan eta egur-labean erreta.
Eguneko menua: **18,5€**
Sagardotegiko menua: **41,25€**
Karta: **40€-60€**
Dastatze-menua: **45-90€**
Berridi Bidea 22 · **ZUBIETA**
T. 943 36 20 49
www.araeta.com
G V O
Al-Ar-Az gauez Udaberrian / udazkenean / Negua. Igande gauez itxita — 450

### Barkaiztegi

Bakailaoa, arrainak eta haragiak parrillan , zainzuri beteak eta garaiko produktuak
Karta: **34€-tik aurrera**
Barkaiztegi Bidea, 42 · **MARTUTENE**
T. 943 45 13 04 · www.barkaiztegi.com
G
Astelehenak gaua, Igande eta jaiegunetan — 180

### Bekoerrota

Arraina parrillan
Eguneko menua: **25€**
Karta: **50€ inguru**
Asteburuko menua : **37€**
B° Jaizubia, s/n · **HONDARRIBIA**
T. 943 64 31 94 / www.bekoerrota.com
V O
Igande gauak eta astelehenak — 750

### Gurutze berri

Ehiza (usoa saltsan)
Eguneko menua: **15€**
Karta: **30€ - 45€**
Bizardia Plaza, 7 · **OIARTZUN**
T. 943 49 06 25
www.gurutzeberri.com
G V
Igande gauak eta astelehenak — 350

### Ziaboga bistrot

Txipiroia
Eguneko menua: **30-35€**
Karta: **8€-35€**
Dastatze-menua: **40€**
Donibane, 91 - **PASAI DONIBANE**
T. 943 51 03 95
www.ziabogabistrot.com
G
Astearteak — 65

**GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA**
Almortza, 2
T. 943 31 60 40
www.hosteleriagipuzkoa.com



# sagardoa

## sagarrezko bihotza

**urteko edozein garai da ona sagardotegi batera bazkaltzera edo afaltzera joateko. Aho-zapore gozoa geldituko zaizu, seguru.**



### sagardoaren errituala

Sagardoa hainbat mendetatik egiten da hemen eta sagarretatik ateratako zukua praktika tradizionalen arabera lortzen da. Urtarrilaren erdialdetik apirilaren amaierara arte, txotxaren erritualak sagardotegietara inguratzen ditu euskaldunak. Bertan, urteko sagardoa dasta daiteke, botilaratu aurretik, bakailaoa eta idi-txuletak oinarri dituzten menu tipikoekin lagunduta. Sagardotegiak urte osoan daude zabalik eta normalean sagardoa egiten zen baserrian bertan egon ohi dira, sagarrondoen artean. Kasu batzuetan zutik jateko ohitura mantentzen da. Komeni izaten da ondo jantzita joatea, upategiko hotzetik babesteko. Baina klimatizaziodun sagardotegi modernoak ere badaude; egurrezko mahai luzeetan eseritan jaten da, bertaratutako beste batzuekin batera. Giroa oso berezia da.

Hernanin eta Astigarragan, Donostiatik hamar kilometro eskasera, 50 sagardotegi inguru daude. Eta Astigarragan dago bisita merezi duen Sagardoaren Museoa: Sagardoetxea.

### sagardotegi menua

**Bakailao-tortilla, idi-txuleta, intxaurrak, gazta eta irasagar-gozokia. Eta nahi duzun bezainbeste sagardo, noski.**



# txotx egitearen errituala

bertako jarduera



**txotx! Hitz magiko hori urtarriletik maiatzaren erdialderaino garatzen den tradizioa baino zerbait gehiago da; izan ere, erritu bihurtu da.**

- **Sagardogileak, "Txotx!" esanda, upel berri bateko sagardoa dastatzeko gonbidapena egiten du.**
- **Mahaikideak mahaitik altxatu eta edalontzi hutsarekin gerturatzen dira. Pertsona bakoitzak, irtsiera-ordena errespetatuta, edalontzia okertzen du, presioz zulo txiki batetik ateratzen den sagardoa edalontzian "hautsi" eta aromak askatu arte.**
- **Sagardoaren ñabardurak upelen ondoan dastatzen dira, eta gainerakoekin partekatzen dira sentsazioak. Gero mahaira itzultzen dira edalontzia hustuta.**
- **Ekintza hori behin eta berriz errepikatzen da upel guztiak dastatu arte.**



### Beharri
Narrika, 22 · DONOSTIA
T. 943 43 16 31
www.sidreriabeharri.com
110
Ez du ixten

### Gurutzeta
Oialume Bidea, 63 · ASTIGARRAGA
T: 943 55 22 42
www.gurutzeta.com
150
Sagardo garaian irekita

### Iretza
Troia Ibilbidea, 25 · ASTIGARRAGA
T: 943 33 00 30 / 636 49 92 22
www.iretza.eus
410
Ez du ixten

### Petritegi
Petritegi bidea, 6 · ASTIGARRAGA
T: 943 45 71 88
www.petritegi.com
560
Ez du ixten

### Saizar
Kalezar Auzoa, 39 · USURBIL
T: 943 36 45 97
www.sidrassaizar.com
300
Astelehenak

### Txirrita
San Bartolomé, 32 · DONOSTIA
T: 943 46 76 38
www.txirritasagardotegia.com
230
Astelehenetik asteazkenera bitartean egun osoz, ostegun eguerditan, eta igande gauetan.

### erreserba ezazu zure sagardo-esperientzia

**SAGARDOAREN LURRALDEA**
Kale Nagusia, 48 · ASTIGARRAGA
T: 943 55 05 75
www.sagardoarenlurraldea.eus

**SAGARDOA ROUTE**
Nabarra Oñatz, 7 - bajo · ASTIGARRAGA
T: 943 33 68 11 / 622 618 476
www.sagardoa.eus

# txakolina

bertako jarduera

## enologiaren iraultza


Katxiña Txakolindegia

### espiritu gaztekoa

**Txakolinak nortasun handia du eta urtekoa edan behar da, hotz-hotza. Edozein janarirekin batera edateko egokia da eta, bereziki, pintxo entzutetsuen laguntzaile bikaina.**

### gure enbaxadorea, txakolina.

Duela 30 urte, txakolina tabernako edaritzat jotzen zen, garratza, interes gabea. Gaur egun, ordea, txakolina gure gastronomiaren enbaxadore nagusietako bat da. Freskotasun handiko **ardo zuri** sofistikatua da, eta munduko mahai zorrotzenak konkistatzen ditu. Getaria, Zarautz, Aia, Orio eta Hondarribiako upategietan barrena ibilbidea eginez gero (Gipuzkoako herri horietan egiten da txakolina gehien), ardo gazte eta frutatsuaren sekretuak ikusiko dituzu. Ezin hobea da gazitutako antxoekin edo oliotan jarritako hegaluzearekin hartzeko. Gainera, kostaldeko paisaiaren inguruan ibilbide gozoaz eta ederraz gozatu ahal izango duzu, baina baita motorra gelditu bezain pronto dastatu ahal izango duzun txakolinaren plazer aurreratuaz ere.

### etxekoa, betikoa

**Txakolina (JD), duela mende askotatik, Euskal Herriko kulturari lotutako ardoa izateaz gain, gure sukaldaritzaren lagun bikaina izan da.**

### txakolin-degiak

**Bisita gidatua egiteko, deitu eta eskatu hitzordua.**

**Hiruzta**

Jaizubia auzoa, 266
HONDARRIBIA
T: 943 10 40 60
www.hiruzta.com



**Katxiña**

Ortzaika auzoa, 20
ORIO
T: 943 58 01 66 / 606 367 693
www.bodegakatxina.com



**Rezabal**

Itsas-Begi Etxea, 628 Asti Auzoa
ZARAUTZ
T: 943 58 08 99
www.txakolirezabal.com



**Talai berri**

Talaimendi 728, Apdo 184
ZARAUTZ
T: 943 13 27 50
www.talaiberri.com



# jatearen artea




### Sukaldeko Arteetan graduko ikasketak emango dituen unibertsitatea hemen egon behar zuen.

Basque Culinary Centerrek 2011n ireki zituen ateak Miramoneko Parke Teknologikoan. Sukaldaritza berriaren beharrei erantzuten die, eta profesionalek zentzumen guztietan emozioak sortzea bilatzen dute bertan.

### gogotsuentzako ikastaroak.

**Sukaldeko Arteen Unibertsitateak sukaldaritzako gogotsuentzako ikastaroak ere eskaintzen ditu, sukaldaritzaren plazer guztien inguruan: ikasi, arakatu, ezagutu, dibertitu eta kultura gastronomikoa hedatu.**

## elkarte gastronomikoak

### bazkide eta gonbidatuentzat

Haietan, bazkideak otorduak egiteko biltzen dira, sukaldea duen lokal egokitu batean, eta adiskidetasunezko giroan. Sartu ahal izateko bazkide batek gonbidatu behar zaitu. Otordua kanpotik ekartzen da eta bertan prestatzen dute otordua egingo dutenetako batek edo hainbatek. Gero gastuak kalkulatu eta guztien artean banatzen dira.

**Elkarte gastronomikoak norberaren etxearen eta jatetxe baten arteko erdibideko espazioa dira.**

**Aukera izanez gero, ez izan zalantzarik. Donostiako kulturan erabat sartzeko aukera da.**

# produktuak

## azoka tradizionalak eta delicatessen-dendak, aukeran



**Donostian, merkataritza tradizionalaren esentzia mantentzen jakin izan da. Hain zuzen ere, gure gastronomiaren arrakasta handiena nekazariek eta abeltzainek urte osoan hirira ekartzen dituzten denboraldiko produktuetan oinarrituta dago. Duela hamarkada ugaritatik berdin-berdin egiten dute.**



Bretxako eta San Martineko handizkako merkatuetan, izen oneneko sukaldariak zuzenean lehengai onenak aukeratzen ikus ditzakezu. Egunero, gero jatetxeetan zerbitzatuko duten haragia, barazkiak eta arraina aukeratzen dute. Donostiatik oso gertu, Tolosako eta Ordiziako azokak ere aukera bikaina dira kalitateko produktu autoktonoak erosteko.

+

### baita sibaritentzat ere.

Eta era berean, hiriak ukitu dotore eta berezi hori du, eta merkataritzako eskaintzan ere antzematen da hori; izan ere, **elikadurako denda espezializatuak ugari dira,** eta adituentzat eta gourmetentzat sukaldaritzako inportazioko produktu bikainak topa ditzakezu horietan.

**Gourmetentzako bisitak**

AITOR LASA
ARAMENDIA CHOCOLATERÍA
ARDOTEKA GOÑI
GARRARTE
GOURMET
IZARBIDE
KOFRADIA ITSAS-ETXEA

Info gehiago _ 88



### benetakoak eta autoktonoak

**Donostiako ingurunean euskal gastronomiaz gozatzeko lehengai onenak eskaintzen ditu: Tolosako babarrunak, gure kaietan deskargatzen diren itsasoko produktuak, Idiazabal JDko gazta, Ibarrako piperrak...**

Itsasoak hemen maisulana egin du.
Gizakia, museo, zentro kultural eta artista ezagunenen eskulturekin, haren mailan jartzen saiatzen da




## Chillida-leku

Jauregi Bailara, 66. Hernani
T: 943 33 59 63
www.museochillidaleku.com

BU05 Linea
Irteera: Okendo kaletik

Chillida Leku egileak bere artearen erakusketa bizi gisa sortutako espazioa da. Zabalaga baserrian, aire zabalean, neurri handiko 40 pieza baino gehiago daude, burdinaz eta granitoz eginda. Barruan, obra txikiagoak, marrazkiak eta egilearen lehen eskulturak daude.



# museoak

## ikusi nahi duten eta beren burua ikusi nahi dutenentzako

**Donostian museoen eskaintza askotarikoa eta zabala dago: historia, zientzia eta teknologia, ozeanografia, artea eta beste ezagutza batzuk zabaltzen dituzte erakusketa-aretoen bidez, itsas urez betetako andelen bidez eta ikus entzunezko instalazio modernoen bidez. Gauzek nola funtzionatzen duten gehiago jakin nahi dutenentzat. Mundua eta beren burua ezagutu nahi dutenentzat.**



bertako jarduera

### San Telmo museoa

Parte Zaharraren bihotzean dago eta berriztatze-lan sakonaren ondoren, museoak ateak ireki berri ditu. XVI. mendeko komentu domingotar zaharra birgaitu eta abangoardiako eraikinarekin handitu dute. Euskal Gizartearen eta Herritarren Museo bihurtu den guneak gure gizarteari buruzko ikuspegi berritzailea eskaintzen du.

Zuloaga plaza, 1 (1E)
T. 943 48 15 80
www.santelmomuseoa.eus

550 m

### Ez galdu Historiaren Etxea Urgullen

**Sarrera doan**
Motako Gaztelua - Urgull Mendia (1D)
T. 943 48 15 47
www.santelmomuseoa.eus

1,4 km

# Aquarium

Itsasoaren Jauregia edo Aquariuma Europako modernoenetakoa da. Eraikina, Juan Carlos Guerra arkitektoaren obra, harri gainean eraikita dago eta birgaitze sakona izan du orain gutxi, eremu didaktikoagoa bihurtzeko. 360º-ko tunel akrilikoak zeharkatzen duen ozeanarioa du, eta bertan, bisitariak itsas bizitzaren protagonista dela sentitzen du, gainetik marrazoak eta arrainzabalak pasatzen ikusita. Itsasoko 200 espezie baino gehiago bizi dira museoan dauden akuarioetan. Ukimen-akuario bat ere badago, ale batzuk ukitu ahal izateko.




bertako jarduera

**Bi zezen-marrazo, TXURI ETA KONTXITA, dira ozeanarioko izarrak eta Aquariuma hiriko atrakzio bisitatuena izatearen arrazoi nagusietako bat. Uretan sartu eta haiekin batera igeri egiteko aukera ere badago. Ausartzen bazara, noski.**

Carlos Blasco Imaz Plaza, 1 (2D)
T. 943 44 00 99
www.aquariumss.com

900 m










# Hondalea

Santa Klara uharteko itsasargiaren eraikin hutsean hondeatua, Cristina Iglesiasen Hondalea (itsas amildegia esan nahi du) lana eskultura-ingurune zirraragarria da. Itsaslabarraren talaiatik begiratzean itsaso menderakaitzak duen eutsi ezineko indar horren erakarpena du lanak. Eskulturari bisita egiteko, aurrez sarrera hartu behar da eta ontziz joan behar da portutik. Uhartera ontziz iritsi eta itsasargira doazen bideetatik arrokei eta olatuei begiratzea ere lanaren kontenplazioaren parte da. Bereziki dinamikoa eta sinbolikoa da eskultura. Bat egindako geruza geologikoetan dago zizelkatua, eta geruza horietan barrena isurtzen da Kantauri itsasoko ura, marearen eta uhartearen inguruko olatuen arabera.

Udaberria – uda.
Kontsultatu ordutegiak hemen:
**www.hondalea.eus**





# Itsasoaren kultura



## Albaola

Itsas Kultur Faktorian, erakusketak dituen ontziola-museoan, artisauak lanean ikus ditzakezu. Gainera, XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplikaren jendaurreko eraikuntzea ikusi ahal izango duzu. Donostiatik 3 Km eskasera dago, itsaslabarren babesean ezkutatutako leku batean. Itsasontziz edo kostaldetik oinez joan gaitezke bertara.

bertako jarduera

Ondartxo pasealekua, 1
Pasai San Pedro
T. 943 39 24 26
**www.albaola.com**

E09 autobusa
Irteerak Okendo kaleko 14tik

## Euskal Itsas Museoa

Euskal Itsas Museoa Herriko itsasoko historia eta ondarea mantentzeko, aztertzeko eta hedatzeko lan egiten du. Horretarako, aldi baterako erakusketak antolatu ohi ditu. Museoa Donostiako Kontsulatuko lonja zaharrean dago, XVIII. mendearen erdialdean eraiki zuten eraikinean.

Kaiko pasealekua, 24 (2D)
T. 943 43 00 51
**www.itsasmuseoa.eus**

850 m





## Kofradia Itsas-etxea

Ezagutu itsasoaren bizitza-zikloa: nola bizi diren eta nola lan egiten duten euskal arrantzaleek, haien arrantza-aparailuak eta itsasoarekin eta marinelen tradizioarekin lotura duen guztia.

Kaimingaintxo Plaza, 1 (2D)
T. 943 050 764
**www.kofradia.eus**

bertako jarduera



## Eureka! Zientzia museoa

bertako jarduera

Museo interaktibo honek ezin hobeto uztartzen ditu zientziaren ikasketa eta dibertsioa. 8 areto desberdinetan kokatzen diren 172 modulu interaktibo baino gehiagoko erakusketa iraunkorra, Planetario digitala, 20 animalia-espezie bizidun dituen Animalia aretoa eta simulagailuen toki ludikoa ditu. Jatetxe-kafetegia, piknikerako eremua eta doako aparkalekua ere baditu.

Mikeletegi pasealekua, 43
T. 943 01 24 78
**www.eurekamuseoa.eus**

28 autobusa
Irteerak
Boulevard 9tik



## Sagardoetxea. Sagardoaren museoa

Sagardoetxea Astigarragan dago, Donostiatik kilometro gutxira eta sagarrari eta haren zukuari egindako omenaldia da. Erakusketako gunea hiru eremutan banatuta dago: sagarraren eta sagardoaren historia laburbiltzen duen zentro itxia; gure lurraldean hazten diren sagarren barietate handia eta hazteko sistema ugariak aztertzea ahalbidetzen duen sagardia; eta sagardoa dastatzeko eta probatzeko gunea.

bertako jarduera

Kale Nagusia, 48
Astigarraga
T. 943 55 05 75
**www.sagardoarenlurraldea.eus**

BU12 - BU13 autobusa
Irteerak Okendo kaleko 14tik




## Cristobal Balenciaga museoa

Cristobal Balenciaga Museoak XX. mendeko goi mailako joskintzako jostun sofistikatuena izan zenaren diseinuen ezaugarri diren dotorezia eta irudimena zabaltzen ditu. Bilduma propio zabalaz gain, aldi baterako erakusketak ere ikusgai izaten ditu.

Aldamar Parkea, 6. GETARIA
T. 943 00 88 40
**www.cristobalbalenciagamuseoa.com**

UK9- UK10 - UK11 autobusak

* **108. orrian duzu Museoei buruzko informazio praktiko guztia: ordutegiak, itxiera-egunak, prezioak eta abar.**

# erakusketetarako guneak

## sartzen den kultura guztia

**Museoez gain, Donostian arteari eta kulturari eskainitako beste espazio batzuk ere badaude eta hirian erreferentzia dira. Arte-adierazpen mota oro sartzen den lekuak dira: zinema, arkitektura, diseinua, ilustrazioa eta ikus-entzunezko joera berriak. Tabakalera, Kubo-Kutxa Aretoa eta Kutxa kultur artegunea artista, aditu eta publikoaren arteko topaleku dira.**



**Tabakalera**

**Sarrera doan**
Andre zigarrogileak plaza, 1 (3F)
T. 943 11 88 55
www.tabakalera.eu

1,2 km

### sala Kubo-Kutxa

Zurriola, 1 (1F)
T. 943 25 19 39
www.sala-kubo-aretoa.eus

500 m

### Kutxa kultur artegunea

Andre zigarrogileak plaza, 1 (3F)
T. 943 25 19 37
www.kutxakulturartegunea.eus

1,2 km

Distantziak Boulevardeko Turismo Bulegotik.

## arte galeriak





Banakako erakusketak eta erakusketa kolektiboak, tokiko artistak, nazio mailakoak eta nazioartekoak, sortzaile gazteak eta irudi ezagunak, azken joeren adierazpen sortzaileak eta ospe oneko etxeetako arte klasikoaren laginak.

**ARTEKO**
**CIBRIÁN**
**EKAIN ARTE LANAK**
**IÑIGO MANTEROLA**
**KUR ART GALLERY**

**Info gehiago _ 92**

# hizkuntzen turismoa

## hizkuntzak ikasi

Donostia, duen historia eta kokapen geografikoa dela eta, hizkuntza ugari dituen hiria da. Ikasi gaztelania edo euskara hirian zauden bitartean.

**EL AULA AZUL**
T: 943 45 29 81 -
www.elaulaazul.com

**LACUNZA IH SAN SEBASTIAN**
T: 943 32 66 80
www.lacunza.com

**TANDEM SAN SEBASTIAN**
T: 943 32 67 05
www.tandemsansebastian.com






# obra osoak

## Donostia

**Arkitekturak Donostian estilo askotako obrak utzi ditu, guztiak kalitate eztabaidaezinekoak. Belle Epoque garaiak eraikin aristokratiko apartak dituen legatu izugarria utzi zuen, frantses-estilo nabarmenarekin. Baina badira gehiago ere: arrazionalismoaren adierazpen baliotsuak, izen oneko obra garaikideak eta zubi eta jauregi distiratsuak... Guztiek bisitatzea merezi duen katalogo osoa osatzen dute.**

### Belle Époque

**área romántica**

1893an, Maria Cristina erregina hirian uda pasatzen hasi zen eta harekin batera etorri ziren Europako aristokraziako asko. Horrek guztiak Donostiara aberastasuna ekarri zuen, dotoretasuna eta estilo frantses nabarmeneko aparteko eraikin harrigarri batzuk. Udaletxea [1] 1887an eraiki zutenetik 1924 arte kasinoa izan zena. Victoria Eugenia Antzokia [2], 1912koa, harearrizkoa eta dekorazio platereskoa duena. María Cristina Hotel [3] distiratsua, Charles Mewes arkitektoarena. Arkitekto horrek egin zituen Madrilgo eta Pariseko Ritz hotelak ere, urrezko garai haren adibide bikainak dira.

Garai hartako beste adibide bat dira Aldundiaren Jauregia [4], Gipuzkoa plazan, Koldo Mitxelena Kulturunea [5] eta La Perla Bainuetxea [6] 1912an eraikia eta garaiko ederrenetakotzat hartutakoa, eta Funikularraren geltokia [7].

### obra garaikidea

Donostian arkitektura garaikidearen adierazpen bikainak daude. Kursaaleko [8] “hondoa jota geratutako” bi harkaitzak, esaterako, Rafael Moneorenak, arkitekturako Mies van der Rohe saria jaso zutenak. Egile horrena da Iesu Eliza [9] ere. Bestalde, Basque Culinary Center-eko [10] eraikin organikoa ere badago, Goi Mailako Gastronomia Ikasketen egoitza da eta pilatutako platerak irudikatzen ditu. Eta Goi Mailako Musika Zentroa, Musikene [11], 2016an inauguratua eta koladun piano batean inspiratutakoa.



La Perla bainuetxea, Kontxa hondartzan (6). Hango talasoterapiaz goza dezakezu.



Zurriolako zubia (14), Boulevard zumardia eta Kursaala lotzen dituena.



### zubiak

Estilo arkitektonikoen lagin interesgarria duzu Urumea ibaiaren ertzean: barroko klasikoenetik hasi eta minimalismoaren sinpletasunaren erakusketara arte. Zurriolako zubia [14], itsasotik gertuen dagoena, 1921ean eraiki zuten eta Art Decó estiloko farola zoragarriak ditu bereizgarri. Santa Katalina zubia [15] hirian eraiki zuten lehenengoa izan zen, egurrezkoa. Eta Maria Kristina zubiak [16], 1905ekoak, lau obelisko monumental izatea du berezigarri.

### museo bihurtutakoak

Donostiaren etengabeko bokazio kulturalak, besteak beste, eraikin zaharrak arkitekturari dagokionez berregituratzea eragiten du. Tabakaleraren [17] kasuan, tabako-fabrika izandakoa orain Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentro bihurtuta dago, eta haren barrualdea eta terraza panoramikoa bisitatzea merezi du. Eta San Telmo Museoa [18], XVI. mendeko domingotarren komentua, birgaitua eta handituta, abangoardiako eraikina da..

### arrazionalismoa

Joan den mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetako estilo propio honek Donostian adierazpen distiratsuak ditu. Klub Nautikoa [12] da agerikoenetako bat: kaian portua hartutako itsasontzia, 1929an eraiki zuten José Manuel Aizpurua eta Joaquín Labayen arkitektoek. La Equitativa [13] eraikina da beste bitxi arrazionalista bat, espresionismoaren ildotik, eta Gros auzoko sarreran pribilegiozko lekua du.



# folklorea baino gehiago: nortasuna

## ausartu zaitez Europako hizkuntzarik zaharrena hitz egiten!

**Zer dago hiriko ohitura nagusien atzean? Danborradaren atzean, estropaden atzean, Euskal Jaien atzean edo San Tomaseko Azokaren atzean? Antzinako hizkuntza bat dago, euskara, eta kultura propioa, aberri emozionala sortzen duena. Nortasuna dago.**



**Euskal kulturak ez du parekorik.** Bere hizkuntza du, euskara, Europako hizkuntzarik zaharrena. Eta gorde ahal izan diren hainbat balio bereizgarri ditu, ahalegina, lurrarekiko lotura, solidaritatea eta tradizioekiko errespetua. Hizkuntza eta nortasun-balioen ondorioz nortasun kolektibo berezia dago eta adierazpen folkloriko ugari eta kirol-erakustaldiak ere ikus daitezke Donostian.

Danborrada, San Tomas Azoka, inauteriak, Herri Kirolen probak edo Donostiako Bandera (landa- eta arrantza-inguruneko langileen arteko antzinako aurkakotasunetan jatorria duen kirol-lehiaketa), hiri honetako herri-jaiei esker, euskaldunen benetako izaeraren beste alderdi bat ikusiko duzu.

→ Urtarrila

### San Sebastian eguna

Irudikatzen al duzu hiri osoa, milaka soldadu napoleoniko eta sukaldari, danborra 24 orduz jarraian jotzen? Danborrada urtarrilaren 20an egiten da, hiriaren zaindariaren ohorez. Gaueko 12etan hasten da, Konstituzio plazan hiriaren bandera igotzean, San Sebastian martxarekin. Jaia egun osokoa da. Ikusi ezean ezin da sinetsi.

→ Otsaila

### Inauteriak

Otsailean ospatu ohi da Inauterien iritsiera. **Galdaragile** zalapartatsuek iragartzen dute, herri-abestiak dioen moduan “Hungariatik etorrita”. Galdaragileen larunbataren hurrengo igandean ospatu ohi da **Iñudeen eta Artzainen** eguna; inudeen eta artzainen gorteiatzea gogoratzen dute, artzainak hirira jaisten zirenean. Bi ekitaldiak Raimundo Sarriegiren melodiekin lagunduta izan ohi dira eta **Inauterien** aurretik izan ohi dira, Momo jainkoaren agerpenarekin. Kaleak kolore anitzeko zoramenarekin betetzen dira.

→ Abuztua

### Aste Nagusia

Donostiako jai nagusia da, eta abuztuaren 15eko aste osoan zehar Ama Birjinaren jaia ospatzen da. Kontzertu eta ekitaldi kulturalez betetako programa zabala eskaintzen du, ikuskizun nagusi batekin: Su Artifizialen Nazioarteko Lehiaketa.

→ Iraila

### Kontxako bandera

Iraileko lehen bi igandeetan hiria arraun zaleekin betetzen da. Kantauri Itsaso aldeko arrantza-herrietatik etorrita, portua eta Urgull mendiaren magala kolorez betetzen dute. Gertakari garrantzitsua da: Kontxako Bandera, arrauneko garaikur nagusia. Arrauneko olinpiada.



→ Iraila

### Euskal Jaiak

Elrailean **Euskal Jaiekin** festa iristen da. Herri-kirolen eta dantza tradizionalen jai-giroko programa zabalari esker, hiria euskal kulturaren inguruko herri-ospakizun handian murgiltzen du.

→ Abendua

### San Tomas azoka

Abenduaren 21ean izaten da eta donostiarrentzat azoka garrantzitsuenetako bat izaten da. Probintzia osoko nekazari eta abeltzainak zergak ordaintzera eta produktu onenak erakustera hiriburura etortzen zireneko azoka oroitzen dute.

+ URTE OSOAN ZEHAR

**Dibertsioa eta kultura.** Ezagutu lehen eskutik euskal pilotaren mundua:

bertako jarduera

**GALARRETA PILOTALEKUA**
Entidad Jauregi, s/n
HERNANI
T. 943 55 10 23
www.galarreta-jaialai.com

**JAI ALAI EVENTS**
T. 617 20 53 20
www.jaialai.eus

**JAI ALIVE**
Portuetxe 83, 3º, 5. Bulegoa
T. 608 51 57 93
www.jaialaiworldtour.com





# jaialdi nagusia

**Zinemaldiak, antzerki-jaialdiek, musika-jaialdiek munduko artista onenak eta milaka lagun erakartzen dituzte urte osoan zehar. Hitzordu kulturalei dagokienez, Donostia benetako jaialdia da.**

## jendearen gogokoenak

### JAZZALDIA NAZIOARTEKO JAZZ JAIALDIA

**Uztaileko bigarren hamabostaldian,** Donostia jazz onenaren erritmoan mugituko da. Musika arloko artista handiak, besteak beste, James Brown, Liza Minelli, Bobby McFerrin, Diana Krall, Cassandra Wilson eta B.B. King, hurbildu izan dira hiriko hondartza, antzoki, plaza eta entzun-aretoetara.

### MUSIKA HAMABOSTALDIA

**Abuztuan**, Musika Hamabostaldiaren publiko kopuruak erakusten du donostiarrek musika sinfonikoarekiko zer zaletasun duten. Artista ospetsuen kontzertuek eta nazioarteko izena duten orkestrek gazteak eta helduak bildu dituzte, eta ia beti “ez dago sarrerarik” kartela egon ohi da zintzilik.

### ZINEMALDIA

Europako zinema-ekitaldi garrantzitsuenetako bat. Hiriaren hitzordu kultural nagusia. Jaialdi nagusia. Izar handiak eta zuzendari gazteak. Nazioko eta nazioarteko zinema-panorama guztia bertaratzen da urtero **irailean** Donostiara urteko ekitaldi kosmopolitenera joateko.



# agenda

**URTARRILA**
**20. San Sebastian eguna**
www.donostiakultura.eus

**OTSAILA**
**Kaldereroak - Inauteriak**
www.donostiakultura.eus

**MARTXOA**
**DFeria**
www.dferia.com

**APIRILA**
**Zinema Eta Giza Eskubideen Jaialdia**
www.zinemaetagizaeskubideak.eus

**MAIATZA**
**Donostia Moda Festival**
Maiatza eta urria
gipuzkoademoda.diariovasco.com
**Dock Of The Bay**
www.dockofthebay.es
**Poltsiko-antzerkia**
www.donostiakultura.eus

**EKAINA**
**San Juan Gaua**
www.donostiakultura.eus

**UZTAILA**
**Jazzaldia**
www.jazzaldia.eus

**ABUZTUA**
**Musika Hamabostaldia**
www.quincenamusical.com
**Aste Nagusia**
Abuztuak 15aren astea.
www.donostiakultura.eus
**Zaldi-lasterketak: Urrezko Kopa Nazioarteko Sari Nagusia.**
Abuztuaren 15ean
www.hipodromoa.com





**IRAILA**
**Euskal Jaiak eta estropadak**
Lehen hamabostaldia
www.donostiakultura.eus
**Zinemaldia**
www.sansebastianfestival.com
**Galarreta pilotalekua: Erremontea Banakako txapelketa** (iraila) **eta binakako txapelketa** (abendua)
www.galarreta-jaialai.com



**URRIA**
**Fantasia eta Beldurrezko Zinemaren astea**
www.sansebastianhorrorfestival.eus
**Itsaspeko zinemaren zikloa**
www.ciclo.subacuaticasrealsociedad.com

**AZAROA**
**Atletismoa: Behobia-San Sebastián**
www.behobia-sansebastian.com
**Atletismoa: Maratoia**
www.zurichmaratonsansebastian.com

**ABENDUA**
**Sagardo Apurua**
**San Tomas** abenduak 21

**Egin geldialdia eta ezagutu orrialde hauetan Donostiak kirolaz eta ariketa fisikoaz gozatzeko eskaintzen dizun guztia. Irakurri, aukeratu eta, gero, eman izena zerbaitetan. Korrika.**



# kirol planak

**GELDIRIK EZ EGOTEA GUSTUKO BADUZU, EGIN HEMEN ETENALDITXOA**

1.

## uretako jarduerak

**Donostian itsaso bakarra dago, baina oso portaera ezberdinak izaten ditu.**

Hiriaren ekialdean, Zurriola hondartza surfarekin erotuta daudenen gozamen bihurtzen diren etengabeko olatuak dituen itsaso adoretsua da. Kontxan, aldiz, badiak urak babesten ditu piragua edo paddle surf batetik arraunean egin dezazun, edo, nahi izanez gero, itsaso bare eta kulunkatzaile batetik hiriko bistez gozatzeko aukera izan dezazun.

Eta gustuko duzuna bela, urpekaritza edo igeriketako zeharkaldiak badira, hemen topatuko duzu horretarako ur egokiena. Gustatzen zaizuna edozer izanda ere, surfaren moduko kirol gogorra eta aldizkakoa, edo arraunaren moduko ariketa jarraitua, Donostian hori egiteko itsaso egokia topatuko duzu.

### paddle surf

**uraren gainean oinez**

Kirol hori itsasoaren gainean oinez ibiltzea bezala da. Surf egitekoen moduko ohol handiaren gainean, oinez, arraun egitean datza. Mundu osoan jarri da modan. Kontxako badia osoan zeharkaldi atsegina egitea ahalbidetuko dizu hiriko mugimendua zure ontzitik ikusiz.

Edonola ere, kirol egokienetako bat da eta edonork egin dezake. **Club Fortunan** materiala urte osoan aloka dezakezu. Gainera, ikasteko oinarrizko ikastaroak eskaintzen dituzte. Baina eserita nabigatzea nahiago baduzu, piragua ere aloka dezakezu.

**Zurriola izango da agian Kantauri itsasoko olatu onenak dituen hiriguneko hondartza**

**OLATUEN GAINEAN DANTZAN IKASTEKO HIRU ESKOLA...**

**BERA BERA RT**
Rodil, 8 (1F)
T. 943 29 12 92 / 609 73 59 81
www.berabera.com

**FREE SURF ESKOLA**
José Miguel Barandiaran, 22
T. 943 321 964 / 647 471 436
www.freesurfeskola.com

**PUKAS SURF ESKOLA**
Zurriola hiribidea, 24 · (1F)
T. 943 32 00 68
eskola.pukassurf.com
bertako jarduera

**... ETA HORI ESTILOAREKIN EGITEKO SALTOKI BAT**

**HAWAII**
Legazpi 8 · (2E)
T. 943 42 55 10
San Bartolomé, 12 · (3E)
T. 943 42 89 96
www.hawaiidonostia.com

**URETAKO JARDUERAK**

**ARRAUNING**
Loiolatarra, 9
T. 658 725 498
www.arrauning.com

**C.D. FORTUNA**
Pío Baroja, 47 (4C)
T. 943 21 49 00
www.cdfortunake.com
bertako jarduera

**WATER JOY HONDARRIBIA**
Hondartzako aparkalekua
HONDARRIBIA
T. 620 32 79 01 / 676 24 95 89
www.waterjoyhondarribia.com
bertako jarduera

(2E) Mapan non dagoen — 110

# 2.
# txirrindularitza

## bi gurpilen gainean...

**Euskadi, plater handian**

**Donostiako ingurunea txirrindularitzarako toki bikaina da.** Oso gertu, Frantziako Tour-eko bi mendate epiko, maila guztietarako ibilbide erakargarriak kostaldean, BTTan ibiltzeko bideak eta Euskadiko paisaiako barnealdeko errepideetan egiteko ibilbide ikonikoak daude. Gorabehera horietan trebatu dira txirrindulari onenetako batzuk: Olano, Lejarreta eta Beloki, esate baterako.

**Kili**k zuretzat egokitutako txirrindularitzako ideiak eskaintzen dizkizu banaka edo taldean egiteko: errepide bidezko ibilbide gidatuak, mountain bike-ko ibilbideak edo hiri-txirrindularitzakoak. Plater handia sartu eta Euskadiren onena ezagutzeko aukera emateko diseinatuta daude. Bizikletak ere alokatzen dituzte.

### bizikleten alokairua

**BICIRENT** (63)
Zurriola Hiribidea, 22 (1F)
T. 943 27 11 73
www.bicirentdonosti.es

bertako jarduera

**LA BICICLETA** (64)
Errege Katolikoak, 14, (3E)
T. 943 44 22 33 / 639 26 79 48
www.labicicletadonostia.com

**SANSE BIKES** (66)
Boulevard, 25 (2E)
T. 943 04 52 29
www.sansebikes.es

**OH MY BIKE!** (65)
Teresa de Calculta Plaza, 6 · (2F)
T. 943 53 97 03
www.ombdonostia.com

### Ibilbideak bizikletaz hiri barruan eta kanpoan

**Hiritik kanpo:**

**BASQUE COUNTRY CYCLING- Kili** (62)
Jose Miguel Barandiaran, 24
T. 943 53 71 34
www.basquecountrycycling.com

**Hiri barruan:**

**GO LOCAL** (67)
Sarriegi Plaza, 9. (2E)
T: 688 958 118
www.golocalsansebastian.com

bertako jarduera



Ibilbide pertsonalizatua diseinatzen lagun diezazuten __ 102

# 3.
# running-a




**Donostia korrika egiteko toki bikaina da.** Hemen zaletasun handia dago eta hiriak itsasertzean pasealeku eta oinezkoentzako kale ugari du ezarritako ibilbideak eratuz. Erabat lauak diren bi klasiko daude: hiru hondartzetakoa, hiria punta batetik bestera, semaforo bakar bat ere zeharkatu beharrik gabe, kostaldeko sei kilometro dituena. Urumea ibaiko ibilbidea ere aipatu beharrekoa da. Bi ibaiertzetatik egin daiteke, zuhaiztiz inguratutako etorbide eta hiriko zubi guztietatik zehar: guztira, zazpi kilometro inguru ditu ibilbide horrek.

Gainera, hiria atletismo-munduko egutegian hitzordu garrantzitsu bihurtu ohi da eta, horien artean, lasterketa hauek aipatu behar dira: **Maratoia, Maratoi Erdia, 15 km-ko Klasikoa** eta ia 30.000 korrikalari biltzen dituen **Behobia-Donostia,** lasterketa herrikoienetako bat.

Eta zer esan txirrindularitzaz... izan ere, Herbehereetakoei inbidiarik ez dien 30 kilometroko bidegorrien sarea eta Donostia-Donostia Klasikoa ditu. Azken lasterketa horrek, uda guztietan, munduko txirrindulari onenak erakartzen ditu.

### ...eta lau gurpilen gainean...

**KARTING OLABERRIA**
Gainera auzoa
20212 OLABERRIA
T: 943 16 08 62
www.circuitodeolaberria.net

### ... eta pilotan aritzeko

bertako jarduera

**GALARRETA PILOTALEKUA**
Entidad Jauregi, s/n
HERNANI
T. 943 55 10 23
www.galarreta-jaialai.com

### ...sasoian jartzeko..

**HEGALAK**
Plaza Cervantes, 2. (3E)
T: 943 43 36 80
www.hegalak.com

(62) Saltokien mapako kokapen-zenbakia __ 94-95

# 4. bertako jarduera

## irteerak untzietan



ibilaldiak kostaldetik, slowfishing, ekoturismoa, alokairua patroiarekin edo gabe

Herri marinela gara. Balea-arrantzaleen, esploratzaileen eta arrantzaleen herria. Zuretzat ere itsasoa inoiz ez bada amaiera izan (bai, ordea, bidearen hasiera), gurekin txango txikiez eta itsasontzian egindako paseo handiez edo arrantza-egunez gozatzeko aukera izango duzu. Nahiago baduzu, gainera, zuretzat eta zure lagunentzat itsasontzi bat izango duzu erabilgarri, patroi eta guzti edo gabe.

### jarduerak itsasoan

bertako jarduera

**BOAT TRIPS SAN SEBASTIAN**
T: 628 18 30 90
www.boattripssansebastian.com

**BRAI KANTAURI**
Portuko kaia, hegoaldeko pantalana
T. 658 723 194
www.brai.eus

**CATAMARÁN CIUDAD SAN SEBASTIÁN**
Kaiko Pasealekua, 14
(Jatetxeen eremua)
T. 607 20 11 55 - 943 28 79 32
www.ciudadsansebastian.com

**MOTORASDELAISLA.COM**
Lasta Plaza z/g, Portuko etxola
T. 943 00 04 50 / 653 72 09 21
www.motorasdelaisla.com

**NAVEGAVELA**
Portuko Kaia, z/g
T. 648 183 037
www.navegavela.com

**ORIBAY TOURS**
Mollaerdia, 6
T. 666 293 057
www.oribay.tours

**OSTARTE SAILING**
Portuko Kaia, z/g
T. 687 25 56 61
www.ostartesailing.com

# 5. bertako jarduera

## trekking

Donostiatik harago, gainerako guztia hasten da. Hemendik oso gertu, beste bide ahaztezin batzuk hasten dira, begientzat gozagarri diren opariak dituztenak, baita euskal historia eta paisaia ordezkatzen duten txoko bizi eta esanguratsuak ere: itsaslabarren memoria sekretua, pagadi zaharren oihartzuna, Donejakue bidearen galtzada zaharrak... Egun bateko edo astebeteko irteerak. Zuretzat edo zure taldearentzat. Ekarri zure motxila, ekin bideari eta bete ezazu oroitzapen baliotsuekin.



ibilaldiak hiriko talaietara

### Igeldo

Ondarreta hondartzatik, oso azkar irteten da hiritik. Minutu bakar batzuk ibilita, hiria begi-bistatik galtzen da eta paisaia erabat ezberdina da. Iparraldean, itsasargiaren bide liluragarritik igo zaitezke, jolas-parkera arte. Eta, hegoaldean, Donejakue bideari jarraituta, 14 kilometroko paseo apartaz goza dezakezu, itsasoaren bazterretik, baserri eta zelai berdeen artetik, Oriora arte.

### Urgull

